



Ipar Irlandako bakearen itoginak

Gordetako egiak eta
azaleratutako mamuak



- **Garazi Goia**, BBCKo komertzio kudeatzailea «EiTBk ez dauka BBCK duen gaitasunik, baina bere jarduna nola egokitu pentsa lezake»
- **Larrun** Kirol amateurra: lehia vs. partaidetza
- **Aulki Hutsak** Heriotzaz eta doluaz dokumentala egin du Iñaki Peña medikuak
- **Etxebizitza** Iruñeko Sanduzelain bizitzen jarri den familia batek ateak ireki dizkigu
- **Glaukoma** «Kultura autogestionatua lantzen dutenak guretzat eredugarriak dira»


 **argia** SARIAK 2014



euskarazko
KOMU
NIKAZI
OAREN
SARIAK
urtarrilak 31
USURBILGO ATXEGA JAUREGIAN

Kazetaritzan eta komunikazioan urtean zehar nabarmendu direnen sari banaketa jarraitzeko aukera izango da arratsaldeko 16:00etatik aurrera

argia.com-en



ATXEGA JAUREGIA



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknika: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaita Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko urtarrilaren 26a, 2.400. zenbakia

ASTEKO GAIA

IPAR IRLANDAKO GATAZKA Iraganeko mamuak kale eta harresietan uluka. XABIER LETONA / 4

PERTSONAIA

GARAZI GOIA: «Prozesu honen bukaera nork bere neurirra egingo du telebista». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Iparralde berpizten.

LIDE HERNANDO / 15

AULKI HUTSAK Maite dugun norbait hiltzen denean.

IKER BARANDIARAN / 16

IRITZIAREN LEIHOA

INDEPENDENTZIA PROZESUAK 2014AN ASIER BLAS / 20

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK MIKEL IRIZAR / 22

HERRITARREN PROTAGONISMOA AURRERA EGITEKO

BENAT ZARRABEITIA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

ZIRTAK Ospe txarra. IRATXE ESNAOLA / 21

TXANDAN Mila aldiz. KATTALIN MINER / 22

ERDIKO KAIERA

GLAUKOMA: «Alienatuta gaude gazteak, salbaziorik ba ote daukagun? Baietz pentsatu nahi du». IKER BARANDIARAN / 24

JEAN MÉTELLUS: «Poesia aiztoa da, kalashnikovaren aurka borrokan». GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 27

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 28

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Askatasunaren antza duen teatroa. OIER GUILLAN / 31

IHESI IRURTZUN (NAFARROA) Aixita gazteluaren zelatan.

IDOIA GARZES / 32

OSASUNA JABIER AGIRRE / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

ETXEBIZITZAREN PROBLEMATIKA Agintarien utzikeriari elkartasunarekin erantzuten. EIDER MADINA BERSATEGI / 39

PAKO SUDUPE: «Eusebio Osa idazle morala eta kontsekuenta izan zen». MIKEL ASURMENDI / 42

BONIFACIO ITURBIDE: «Izugarrizko menderakuntza jasaten ari gara eta geldirik gaude». IURE EIZAGIRRE / 44

EMAKUMEAK MEMORIA KOLEKTIBOAN «Bidea urratu duten bertsoak» ARGIArekin opari. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Smart berriena niretzat, besterentzat zabor elektronikoa. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Iraganeko mamuak kale eta harresietan uluka

Gerra, gatazka, terrorismoa... Halakoez aritzen ziren 1972an Belfasten eta halakoez jarduten dute 2014an ere. Prozesu korapilatsua tarteko, bakea bideratu dute azken 15 urteetan. Baina ez dute iragana bateratu, egia ez da guztiz azaleratu eta mamuen beldur dira. Ezingo dute dena adostu, baina hainbat kontu bai, eta horrek etorkizuna eraikitzen lagunduko die.

| XABIER LETONA |

IPAR IRLANDAKO gatazkak 3.665 hildako eragin zituen 1966tik 2011ra arte. Amnesty Internationalen datuetan, talde armatu errepublikarrek —katolikoak— hildakoen %60 eragin zituzten, talde loialistek —protestanteak— %30 eta segurtasun indarrek %10. 16.200 bonba leherketa eta 37.000 tiroketen ondoren, 40.000 bat pertsona zaurituak izan ziren.

Derryko konterrian 353 hildako izan dira eta horren arrastoak ugariak dira hirian: muralak, lore eskaintzak, Bloody Sunday museoa, lagunen testigantzak... Zeresanik ez Belfasten, bertan gertatu ziren heriotzen ia erdia. Bigarren Mundu Gerraz geroztik —eta Balkanetako Gerraren ondoren— gatazka politiko batek

Ballygawley-en (Tyrone) segurtasun indarren egoitzaren aurka IRAk 1992ko abenduan egindako erasoaren irudiak ikusi daitezke argazkian.

Europar eragindako heriotz kopuru handiena izan zen.

Bake prozesuak 1998an ekarri zuen Ostiral Santuko Akordioa. Bakea. Errepublikar eta loialisten artean oraindik ere badira harekin ados ez dauden talde armatu txiki batzuk, baina oro har, bakea eta elkarbizitza eraikitzen jarraitzen dutela azpimarra liteke. Eta, ispilu latzaz gain, iragana zama ere bada eraikuntza horretan. Bake akordioetan argi azpimarratu zen giza eskubideak eta biktimak prozesuaren oinarrietakoa izan behar zutela, eta ezin esan ez dela indarrak jarri horretan. Aurrerapen asko izan dira, baina oraindik bake prozesuan jarritako helburuak bete gabe daude eta esparru



NATIONAL ARMY MUSEUM (UK)

askotan betetzetik oso urruti. Oraindik, esaterako, hildako kasuen erdia argitu eta auziperatu gabe dago. Eta, ondorioz, biak batera eraman ezinak bailiran, eztabaida pil-pilean da: egia ala justizia?.

Ekimen ugari jarri dira abian azken hamarkadan. Ostiral Santuko Akordioekin bat, Giza eskubideen Batzordeak eratu ziren Erresuma Batuan eta Irlandako Errepublikan. 2001ean PSNI polizia berriak RUC zaharra ordezkatu zuen. 2005ean poliziaren Ikerketa Historikoen Taldea sortu zen (HET). 2006an Biktimak eta Biziraun Dutenak erakunde. 2007an Iraganaren gaineko Kontsulta Taldea (IKT) eratu zen. Nazioarteko epaileek bideratutako ikerketa independenteak ere izan dira. Ehunka milioi euro gastatu dira ikerketetan. Baina 15 urteren ondoren, alderdi politikoek ezin izan dute iraganarekiko begirada adostu.

Horretarako ahalegin garrantzitsuenetakoa Iraganaren gaineko Kontsulta Taldearena izan da, 2009an Eames Bradley Txostena –Robin Eames eta Denis Bradley ziren egileak– aurkeztu zuten, baina ez zen akordiorik izan. Talde honek proposatu zuen, esate baterako, biktima guztien familiei 14.000.000 euro ematea, eta horrek kritika sutsuak ekarri zituen, batez ere unionismoaren aldetik, haien esanetan proposamenak terroristak eta hauek hildakoak berdintzen zituelako. Sinn Feinneke ere ez zuen ikusi begi onez, batez ere berak aldarrikatzen zuen nazioarteko batzorde independente-rako aterik zabaltzen ez zuelako.

Haass elkarrizketak

2013aren bukaerarekin etorri da iraganaz adosteko azken porrota. Azken urteetan istilu larriak izan dira desfile eta banderen auziengatik. Banderen istiluek mundura egin zuten jauzi 2013 hasieran Belfastko Udalak bandera britainiarra udaletxean bakarrik egun jakinetan jarriko zela erabaki ondoren. Egoeraren arriskua ikusita, Ipar Irlandako Gobernu autonomoak alderdien arteko elkarrizketak bideratzeko enkargua egin zion Richard Haass diplomatiko estatubatuarrari. Hiru gai nagusi jorratuko ziren: desfileak, banderak eta iragana, eta 2013ko epea zegoen negoziatzeko. Iragan abenduaren 31n alderdi unionistek atzera bota zuten Haassek aurkeztutako zazpigarren akordio zirriborroa. Orain, Haassen bitartekaritza barik jarraitu beharko dute alderdiek eta ez da akordiorako tarterik ikusten. Eta unionisten beto berri honek kezka piztu du, bereziki errepublikarrean.

Ikerketa historikoa kili-kolo

Ikerketari Historikoen Taldeak 1968 eta 1998 artean izandako 2.682 pertsonen auziak berrikusi ditu, eta 2.209 kasutan lanak bukatu ditu.

1966TIK 2001ERA IPAR IRLANDAKO GATAZKAN HILDAKOEN IZAERA

Zibilak	2051
Zibil protestanteak	705
Zibil katolikoak	1238
RUC/RUCR (Polizia)	303
UDR (Armada)	206
Armada	503
Talde armatu errepublikarrak	394
Talde armatu loialistak	157
Bestelakoak.....	159
GUZTIRA.....	3.665

HERIOTZEN ERANTZUKIZUNA

IRA.....	1778
OIRA	54
INLA (Errepublikarrak)	150
Bestelako errepublikarrak	137
Real IRA	29
UDA/UFF (Loialistak)	415
UVF/Red H. C. (Loialistak)	555
LVF (Loialistak)	15
Red H. Def. (Loialistak)	3
Bestelako loialistak.....	83
Armada	301
RUC/RUCR.....	50
UDR	8
Bestelakoak	87
GUZTIRA.....	3665

HILDAKOAK URTEKA

1966	3	1984	71
1967	0	1985	59
1968	0	1986	66
1969	19	1987	106
1970	29	1988.....	105
1971	180	1989	81
1972	497	1990	84
1973	263	1991	102
1974	304	1992	91
1975	267	1993	90
1976	307	1994	69
1977	116	1995	9
1978	88	1996	22
1979	125	1997	22
1980	86	1998	57
1981	118	1999	7
1982	112	2000	19
1983	87	2001	4


Iturria: Lost lives.statistics

Ipar Irlandan iraganaren gaurkotasuna zertan den ezagutzeko ezinbesteko hiru argitalpen




Dealing with the Past? (Healing Through Remembering).

Honakoa da argitalpenaren titulu osoa: *Iragana kudeatzeko? Ipar Irlandako gatazkaren Ikuspegi Juridiko eta Politikokoekiko Begirada Orokor bat*. Healing Through Remembering (Oroituz Sendatu) elkarteak kaleratu zuen 2013ko udazkenean. Egilea Kieran MacEvoy da (LARRUNeko 150. zenbakian idatzi zuen iritzi artikulu bat), Ipar Irlandan gatazka eta iraganaren gaiak sakon ikertu dituen unibertsitateko irakaslea. Gatazka, iragana eta biktimen gaiak ikuspegi juridiko eta politikotik aztertuta gaur egun nola dauden azaltzen du zehaztasun handiz.



Northern Ireland: Time to deal with the past (Amnesty International).

Ipar Irlanda: iragana kudeatzeko ordua. Amnesty Internationalek argitaratu zuen 2013ko irailean eta biktimak eta giza eskubideetan oinarrituta, 1998tik gaurdainoko lanaren oso balorazio kritikoa plazaratzen du. Ipar Irlandako erakunde eta alderdi politikoen kritika zorrotza da, baina batez ere gobernu britainiarra bere konpromisoak ez dituela bete azpimarratzen du. Egindako ikerketa lanaren hutsuneak eta ahuldadeak azaleratzen ditu txostenak, eta aurrera begira biktimak arazoaren erdigunean jartzeko egin beharreko aholkuen zerrenda egiten du.



Lethal Allies (Anne Cadwallader).

Aliatu bilgarriak 2013ko urria amaieran kaleratu zen eta, gezurra badirudi ere, ikerketa liburu hau izan da azaroa eta abenduan Ipar Irlandako liburu salduenetakoa: 12.000 ale. 1972tik 1978ra Armagh eta Tyroneko konterrietan talde paramilitar loialistek auzaz hildako 120 katolikoren ikerketa zehatza egiten du. Ezaguna zen katolikoen hilketetan talde loialista eta armada eta segurtasun indar britainiarren artean egondako konplizitatea, baina liburu honek frogatzen du tinkoak ematen ditu. Pat Finucane Centerrek bultzatutako lana da.



Teorian katoliko eta protestanteen arteko indar gisa heldu zen armada britainiarra Ipar Irlandara 1969an.

Gainerakoak 2014an bukatzea espero du. Taldeari buruzko eztabaida, ordea, handia da. Oro har, talde unionistek bere lana goraiatzeko dute, eta iraganarekiko begiradaren oinarritzko osagaitzat daukate. Errepublikarrak eta GKE ugari kritikoak dira, tartean Amnesty International: onartzen dute kasu askotan lan ona egin dela, baina oro har azalean geratzea leporatzen diote, batez ere segurtasun indarrek eragindako hilketetan. Entzun izan da HET desegin egingo dela eta Ipar Irlandako Poliziak hartuko duela bere lekua.

James Miller, Derryko konterrian 1972an ustez IRAren lehergailu batek hil zuen David Millerren biloba: “Esaten da gu noiz hilko garen zain daudela. Baina hurrengo belaunaldiak jarraituko du galdetzen gertatu zenaz. Begira ni, nire aitona hil zuten eta oraindik jarraitzen dut galdetzen egia ezagutzeko”.

Paul O'Connor, Pat Finucane Centerreko kidea

«Guretzat egia da inportanteena, Estatuarentzat justizia formala»

PAT FINUCANE CENTER (PFC) giza eskubideak eta egiaren berreskurapenean diharduen gobernu kanpoko erakundea da eta bertan ari da lanean Paul O'Connor 1992tik. Europar Batasuneko eta Irlandako Gobernuaren diruak sostengatzen dute elkarteak. Pat Finucane 1989an loialistek hil zuten Belfastko abokatua zen eta, haren oroimena eskuan, Ipar Irlandako gatazkan 35 urtean zehar gertatutako 200 bat hildakoren —gehienak katolikoak— nondik norakoak ikertzen ari da, besteak beste. Ikerketa lanari ekiteko hildakoen familiek haiengana jo behar dute eta honek ekin egiten dio, bai bere kabuz eta, batez ere, Ipar Irlandako Poliziaren Ikerketa Historikoen Taldearen (HET) lana jarraituz.



Pat Finucane Centerrek Derryn daukan bulegoan egin genuen elkarrizketa, han ari da lanean Paul O'Connor 1992az geroztik.

Egia eta justizia. Gatazka baten iragana ikerterakoan lehiari ibiltzen dira bi kontzeptuak.

Errepublikar eta nazionalista familia askok ez dute ezer espero justiziatik, ez dute konfiantzarik eta errealistak dira. Loialisten familia askok, batez ere segurtasun indarren hildakoen familietakoak, oraindik ere justiziaz hitz egiten dute, eurek sinesten dutelako Estatuak egin zuena ondo dagoela eta Estatuak oraindik eman behar diela erantzun egoki bat. IRAk norbait hil bazuen duela 30 urte, eta hori ikertzen bada, izan behar du kontu handiz, frogekin, ADNarekin... Baina, adibidez, soldadu batek sei metroko distantziaz botatutako gomazko pilotak norbait hil duenean, hori ez da ulertzen “tiro egite” gisa.

Estatuarentzat akaso izango du garrantzia justizia formalarenak, baina guretzat garrantzitsuena egia da, ezagutzea Estatu britainiarrak noraino egon den sartua gatazka honetan, hau ez baita izan katoliko eta protestanteen arteko gatazka bat

Ez da akordiorik egon Haas elkarrizketetan. Uste duzu azkenean posible izango dela iragana ikertuko duen batzorde independente baten sorrera, adibidez Sinn Feinek aldarrikatzen duen bezala?

Ez dakit, baina horrekin ere kontuz ibili behar da. Estatu britainiarrak inoiz ez ditu

“Lethal Allies (Aliatu hilgarriak) liburuan armada eta segurtasun indarrak, eta talde paramilitar loialisten arteko frogak agertu ditugu, eta hauek HETri esker lortutakoak dira”

bere artxiboak guztiz irekiko eta IRAk ere ez. Hala ere, artxiboak etengabe arakatzen ditugu eta lortzen dugu prozesu berriak irekitzea eta hori oso positiboa da familientzat. Baina, jakina, hori da izebergaren punta, eta gauza asko inoiz ez ditugu jakingo. Horregatik, PFCren politika oso pragmatikoa da. Hildakoen guraso asko hiltzen ari dira, zer esan behar diegu, itxaroteko 30 urte batzorde independentea sortu arte eta honek emaitzak eman arte?

Familia guztiek ez dute justiziaren ideia bera. Hauetako batzuek soldaduak espetxean ikusi nahi dituzte —ez da gertatuko— eta beste batzuek egia besterik ez dute nahi, horrek lasaitasuna ematen dielako. Armadak hildako gehienak errugabeak ziren, baina esaten zuten terroristak edo haien laguntzaileak zirela; Estatu britainiarrak errugabeak zirela onartzea nahi dute familiek.

Jakina, nahi baduzu norbait hil zuten soldaduak espetxera joatea, onartu behar duzu baita ere norbait hil zuten IRAko kideak ere espetxera itzultzea. Bake prozesuan espetxeak hustu genituen eta orain berriz betetzen hasiko gara?

IPAR IRLANDAKO GATAZKA

RED WELL THEATER GROUP



Immunitate mugatua kontzeptuarekin ari dira lanean Ipar Irlandan, hots, norbaitek deklaratzuz gero delituren bat egin duela, hori ezin da bere kontra erabili auziperatzean, beti ere 1998aren aurrekoa bada.

Esaten da 3.600 hildakoetatik kasu gehienak oraindik ikertu eta auziperatu barik daudela. Esaten da hauen ikerketaz aritzen den HET desagertu egingo dela. Bere lana oso zalan-tzan jarri da. Zuek asko aritu zarete haiekin. Zer uste duzu?

Seguruenik HET desagertuko da. Prozesu hau batez ere britainiarra izan da, eta hori izan da arazorik handiena. Bere zeregina oso eztabaidatua izan da eta askotan oso azalean ibili dira, horregatik gure lana izan da haiek ikertzera bultzatzea. HETko talde batzuek lan ona egin dute, beste batzuek ez. Adibidez, *Lethal Allies* (Aliatu hilgarriak) liburuan armada eta segurtasun indarrak eta talde paramilitar loialisten arteko frogak agertu ditugu, eta hauek HETri esker lortutakoak dira, oso froga indartsuak. Baina, oro har, HETk behar du legeak eta prozedurak ondo ezagutzen dituztenen jarraipena. Horregatik gu oso kritiko izan gara HETk babesik gabeko familien hildakoak ikertu dituztenean, prozesu hauek gehienetan porrotean amaitu direlako. PFCK, esaterako, inoiz ez du onartu HETk aurkeztutako lehen informea.

Britainiar estatua eta paramilitar loialisten arteko konplizitatearen frogak oso argiak dira liburuan ikertutako 120 kasu horietan. Eta orain, zer gertatuko da?

Gobernuarentzat PFC bazter uztea erraza da, baina epaile batzuek zerbait esatea, edo Legebiltzarrean esatea... Hori saihestea zailagoa da haientzat. Orain justiziaren esparruan norbaitek gure lanarekin zerbait egitea lortu behar dugu. Duela gutxi egon gara Estatuko ordezkariekin eta esan diegu: "120 hildakoren froga oso zehatzak daude hor, zer egingo duzue liburuarekin?". Eta ez dakite zer egin.

"PFCren politika oso pragmatikoa da. Hildakoen guraso asko hiltzen ari dira, zer esan behar diegu, itxaroteko 30 urte batzorde independentea sortu arte eta honek emaitzak eman arte?"

Bloody Sunday auzia ikertu zuen batzordean hiru epaile ziren eta hauek esan zuten, "bai, armadak jende errugabea hil zuen", eta horrek erraztu zuen David Cameronek "sentitzen dut" esan ahal izatea.

IRak desagerrarazitako 15 bat kasuetatik zortzi pertsonenak oraindik ez dira argitu. Zergatik da? IRak informaziorik ematen ez duelako, denbora asko pasatu delako eta informazioa ahaztua edo galduta dagoelako...?

Hilketa horiek ikertzen dituen batzordearen arabera, IRak eman du laguntza topatu direnak bilatzeko, baina hainbat kasutan tartean zegoen jendea hilda dago, edo ezin dira gogoratu, edo ez daude ados bake prozesuarekin, edo Sinn Fein kaltetu nahi dute... Baina kritika orain ez da IRaren aurkakoa, baizik informazioa izan dezaketen pertsonen aurka. Edozein modutan, immunitate mugatuaren sistemak funtzionatzen du, eta horregatik agertu izan dira hainbat desagertu.

Zertan oinarritzen da immunitate mugatua?

Hildakoaren familiak immunitate mugatua indarrean jartzeko baimena ematen duenean, norbaitek deklaratzan badu berak zerbaitetan parte hartu duela, hori ezin da bere kontra erabili auziperatzean.

Euskal Herrian iraganaren kontakizunaren gaiak garrantzi handia hartu du. Hemen zer adostu da iraganari buruz?

Kontakizunak hainbat dira, ez dago kontakizun bakarrik. Loialisten zati batek, adibidez, ez ditu onartzen hemen izandako errepresioa eta bere ondorioak, hemen urteetan horrek eragin zuen izua; Belfastko iparraldean, adibidez, 600 pertsona hil zituzten. Haientzat katolikoak besterik ez ziren.

Eta gure komunitate nazionalistak, errepublikarrak, oraindik ez du ulertzen ondo IRak egindako mina, gerra batean gertatutakoak ziren eta listo. IRak ia mila soldadu eta polizia hil zituen. Horiek borroka batean gertatutakoak dira, baina horrez gain, beste 600 pertsona ere hil zituen. Horretaz guztiaz ere hitz egin behar dugu. ■



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza

(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 145 € / Iparr Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA

20160 LASARTE-ORIA

(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI VITI

«Prozesu honen bukaeran nork bere neurrira egingo du telebista»

35 urteko neska gaztea, Seguran jaiotako euskalduna, BBCn goi-lanetan. Euskarazko idazlea, bidea egiten ari dena. Erbestean ikasia etxean erakutsiko diguna, noizbait. Ageriko!

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Zer du BBCK izen eta aipu eta sona handi hori?

Urte askoan lanean irabazitako konfiantza, inpartzialtasuna, kultur erreferente izatea nazioartean... Gauza asko. Jendeak urtean 144 liberako kanona ordaintzen du eta, ordaintetan, zerbait espero du, zerbait ona. Kalitatezko edukiak, esan nahi dut. Hasieran neu ere harritu egin nintzen, ez nuen ulertzen jendeak BBCn zuen konfiantza. Inork ez zuen kanon hori ordaintzea kuestionatzen. Inork ez. Aldiz, gogoritzen naiz Espainian egin zutela kanona ezartzeko saiakera, eta ez zuela aurrera egin. BBC, berriz, identitatearen parte bat da, jendeak konfiantza dio hedabideari, benetan.

Zer zenuen BBC, bertan lanean hasi aurretik?

Hedabideen artean, mundu mailako erreferentzia: telebistarik handienetako bat. Bertako proiektu interesgarriek erakarri ninduten, haren handitasunak, garrantziak, ikusle kopuruak... Bertan lanean hasi nintzenetik, berriz, bertako jendeak bete nau gehien, talentu handikoa. Kezkarik gabe diote: "Gu ez gaude hemen diruagatik, pasioagatik baizik!". Eta egia da, BBCKo langile batek telebista kate pribatuan lan bera egiten duen batek baino gutxiago irabazten du-eta. Jende ona ari da BBCn lanean eta, batzuk ezagutzen ditut, bertan lan egin nahi izan dute txikitatik! Gauza interesgarri asko BBCK. Bestalde, aitzindari da arlo askotan, aurrera begira bizi da beti, proiektu berrietan lanean. Horrek indar handia ematen dit. Bat egiten dut audientziara iristeko dituen balioekin, bertako langile jendearekin, eta Ingalaterrako gizartean ordezkatzeko duenarekin.

Telekomunikazio ingeniarietza ikasketak egin zenituen EHUn, gestio lanean ari zara BBCn. Harrigarri ere bada, hein batean...

Beti esan behar izaten dut: ingeniarietza ikasketak egin nituen, bai, baina inoiz ez dut ingeniari lanik egin. Ingeniaritza tesia bukatu eta hiruzpalau hilabeteko epea nuen hura aurkeztu aurretik. Bitarte horretan, Londresera joan nintzen, lagun bat bisitan. Beti erakarri izan nau bidaiatzeak, atzerrian denboraldia egiteak, eta, orduko hartan, Londresen nengoela, neure buruari esan nion: "Hemen lana bilatzen saiatuko naiz". Postproduktzio etxe batean hasi nintzen lanean. HBO, Warner eta abarren filiala zen Londresen, eta euren produktuen DVD eskubideak zituzten Europan eta Ekialde Hurbilean. Proiektuen kudeaketan hasi nintzen bertan, DVDen hedapenean, negozioaren garapenean esangogenuke. Hiru urte eman nituen han. Handik Bilbora itzuli nintzen, teknologia berrie-

NORTASUN AGIRIA

Garazi Goia (Segura, 1978) Telekomunikazio ingeniarietza ikasketak egin zituen Bilboko EHUn. Hala ere, inoiz ez du ingeniari lanik egin. Kudeaketa lanean ari da BBCn, Londresen, joan deneko zazpi urtean, etorkizuneko estrategiak pentsatzen. Irakurle amorratua da eta txanponaren beste aldearek gaztetatik bizi du: idazle da. *Bi hitz eta Txartel bat (des)herrira* ditu orain arte argitaratutako lanak, eta ipuina du *Orgasmus* lan kolektiboan ere. "Jaioko dira berriak" kantatu zuenak bazekien zer edo zer. Berri horietakoa da Garazi Goia.





tako aholkularitza etxe batean, telebista interaktiboari lotutako produktu baten salmentan. Espainiako telebista askorekin jarri nintzen harremanetan garai hartan. Arlo komertzialean ari nintzen lanean orduan ere, ez ingeniari. Hala ere, Londresen nahi nuen nik, hemen profesionalki mugatuago ikusten nuen nire burua, eta, horrela, BBCren hautatze prozesu batean eman nuen izena, eta aukeratu egin ninduten: “Ez dago zalantzarik. Banoa!”. Eta holaxe.

Linkedinen irakurri dugu: Garazi Goia, BBCren Komertzio Kudeaketarako burua.

Lan ezberdinak egin ditut horra heldu aurretik. Kanalen banaketa arloan hasi nintzen, BBCren zortzi telebista kateak eta hamahiru irratia Ingalaterrako etxe guztietara iritsi ahal izateko gestio lanean: erreguladoreekin egin behar diren akordioak, gobernuarekiko hitzarmenak, edukien garapen estrategia... Proiektu txikiak gestionatzen hasi, eta, politikari, estrategia lanetan hasi nintzen. Behe-tik gora egin dut eta oraintxe ekipoa zuzentzen dut, merkataritza-kudeaketa helburu. Batean, BBCren kanal berri bat sortzeko estrategia landuko dugu; bestean, internet bidezko telebistaren geroa aztertuko dugu... Nik, proposamen finantzari eta estrategikoak kudeatzen ditut, eta zuzendaritzari aurkeztzen dizkiot: kostua, audientzia izango duen eragina, merkatu berean ari diren lehiakideen lanarekiko inpaktua, teknologia berriei dagokienez zein posiziotan dagoen, beste zenbait telebistarekin koalizioa egin ez egin... Aurrera begirako lana beti.

Idazle

“Txikitatik izan dut literaturarekiko zaletasuna. Irakurle sutsua izan naiz, etxean ere liburu asko izan dira beti. Hortik datorkit interesa. Gazterik hasi nintzen idazten eta lehiaketetan parte hartzen. Urruzuno saria irabazi nuen 1996an, eta, aurretik, bailara mailako lehiaketaren bat. Irakurtzeko zaletasunak bultzatuta hasi nintzen idazten. Horrela etorri zen nire lehenengo lana, *Bi hitz*, 2008an, Londresen ari nintzela lanean”.

Etorkizuna igartzea ez da, bada, lan erraza izango.

Oso zaila! BBCn ikerketa sail handia dago, I+D bat, erreferentea munduan. Arlo teknikoan zer egin daitekeen ikertzen dute; guk, haien aurrerapen teknikoak arlo estrategikora ekartzen ditugu. BBCk audientziari gero eta eduki eta produktu hobek emateko erantzukizuna du, ezin da gelditu momentuan duenarekin. Kanonak hiru bilioi libera ematen dizkio BBCri, eta zati handi bat eduki berriak sortzen edo erosten gastatzen da, baina bada-go beste zati inportante bat eduki horiek jendeari helarazteko estrategiak diseinatzen gastatzen dena. Estrategiak, esan nahi dut, edukiak betiko telebistan ez baina tabletetan, telefono mugikorretan eta gainerako modu berriago hauen bidez ere kontsumitzaileari helarazteko.

Inor aurretik ibili gabeko lurretan ibiltzea da hori.

Zaila, eta aldi berean interesgarria. Pribilegiatua sentitzen naiz horrelako hausnarketak egiten dituen talde bateko parte naizelako. Europar ibiltzen naiz, han eta hemen, Bruselan, Europar Batzordean eta Ginebran, irriti zabaltzaile guztiak biltzen dituen erakundean, eta han garbi ikusten da herrialde bakoitzak bere maila duela, bere abiadura. Espainia atzera dago, esaterako, eta Euskal Herriak, berriz, ez du han presentziarik Europako foro horietan, tamalez. Ingalaterra, aldiz, aurreko muturrean da, BBCk bultzatuta. Beti izan da erreferente. Hor dira Alemania eta Frantzia ere, ondo kokatuta.

Espainia atzera dago, Euskal Herriak ordezkari-
tzarik ere ez.

Hedabide bakoitzak diru ekarpena egin
behar dio erakundeari eta, beraz, ikusi egin
behar EiTBri horrelakorik komeni zaion.
Tira, bertan egon eta entzutea bera ez dago
gaizki, baina ez dakit hori ote den lehentasu-
na... Ni, dena den, EiTBko jendearekin
harremanetan nago, maila pertsonalean eta
profesionalean, zuzendaritzan daudenekin
eta ez daudenekin, zenbait saiakera egiteko
gogoia dutenekin.

Nola ikusten duzu EiTB?

Telebista aurrera ateratzekotan, apustuak
egin behar dituzu, eta dirurik ez baduzu,
ezin apusturik egin. Dagoenari eustea bes-
terik ez dago. Dirurik ez bada, aurrera begi-
rako proiektuak lantzeko muga handiak
dituzu. Proiektu interesgarriak badaude,
hala ere. *EiTB nahieran*, adibidez, oso gertu-
tik jarraitu dut, interesgarria da guztiz. Esan
zidatenez, bestalde, ikus-entzunezkoen
arloa nahiko apal dabil, eta jende askok
motibaziorik ez du. Soldatak jaitsi, lan
segurtasunik ez... Valentziako telebistaren
itxiera... Ez da arriskuak hartzeko giro
onena.

**BBCK ez du horrelako kezkarik, hiru bilioiko
diru sarrera duelarik kanonaren bidez.**

BBCK irabazi egin du bere indarra. Kanona,
esaterako, izoztuta dago joan den bost
urtean, baina, hala ere, diru kopuru berare-
kin ere, gauza gehiago egiten ari da. Horixe
da erronka, erantzuten segitzea, jendeak
hedabidean konfiantza ez galtzea, eta aurre-
ra begiratzea, proiektu eta asmo berrien
bitartez. Kanona igotzea oso zaila izango
da. 2017an egingo da berriz BBCren eta
gobernuaren arteko negoziazioa, eta kano-
na igo, mantendu edo jaitsi egingo da, eta
horrek ere erakutsiko du nolakoa izango
den etorkizuna.

(des)herrira

**"Txartel bat
(des)herrira guztiz
ariketa ezberdina
izan da. Askoz
landuagoa da, ni
ere askoz
kontzienteagoa
nintzen zertan ari
nintzen. Bestelako
ariketa izan da,
atzetik bilaketa
lan handia egin
nuelako, gerrako
haurrei buruzko
alde historikoa
behar den bezala
erakusteko.
Gerrako haurren
gaia beti irudit
zait interesgarria.
Seguran, behin,
Ingalaterrara
joandako haur
haietako baten
semea ezagutu
nuen aitaren
bidez. Londresera
berriz, ea han zer
edo zer aurkitzen
nuen joan nintzen.
Basque Children
of 37
erakundearekin
harremanetan jarri
nintzen, eta bidea
egin nuen".**

BBCren erreferentzialtasuna aipatu duzularik,
uste nuen Amerikako Estatu Batuak ere hor
zirela...

Uste duzu? Bai, NBC, CBS eta beste hain-
bat telebistek indar handia dute. Baita, tele-
bistaren munduan edo edukien munduan
beste perspektiba bat emanez indar handiz
sartzen ari diren bestelako enpresa batzuk
ere, Netflix, Samsung edo Amazon adibi-
dez.

Hollywoodeko produktu zaparrada hori dut,
beharbada, gogoan. Industriaren presentzia
handi hori, film eta telesail, haurrentzako saio
mordoa...

Horretan zuzen egon zintezke, film eta tele-
sailai dagokienean, alegia. British telesailak
Amerikakoak ez bezalakoak dira, bestelako
umorea dutela esan ohi da, eta hala da, gaine-
ra. Amerikatik beste eskala batean datozkigu
gauzak, askoz eduki gehiago, diru gehiago
mugitzen da. Baina, hala ere, BBC presente
dago Europan eta munduan. Dokumental
sail oso indartsua du, esate baterako. Saio
didaktikoak ere mordoxka, lehiaketa modu-
koak eta, batik bat, albistegiak. Nazioartean
errekonozimendua dute.

**EiTBko zenbait arduradunekin egokitzen zarela,
zer esaten diezu? Gomendiorik baduzu?**

Ez da erraza. Esaterako, baliteke EiTBren-
tzat BBC ez izatea erreferentzia, edo behin-
tzat EiTBren eskalara egokitzen jakitea izan-
go litzateke garrantzitsua. BBCren
testuingurua, atzetik duen bultzada, egitu-
ra... ez badituzu, alferrik dira konparazioak.
Beharbada, merezi du ulertzea Ingalaterran
zein izan diren arrakastaren parametroak,
merezi du pentsatzea ea hango faktoreek
honako ere balio duten, zein diren Euskal
Herrian funtzionatuko luketenak. Maila
horretan hitz egiten dugu. Teknologia
berriez ari garenean, adibidez, nora doazen
egiten dugu gogoeta, horiek telebistan nola



Bartolo
taberna - jatetxea

**Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala**

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

burmuinen ihesa

Ez dugu jakiten zertaz ari diren "burmuinen ihesa" diotenean, zer nolako jendea dugun etxean, harik eta heritik kanpora bide ederra egiten hasten diren arte. Horietako batekin gertatzen garenean hasten gara entenditzen zer esan nahi duen "burmuinen ihesa" terminoak. Garazi Goia bat gurean ez edukitzeak eskasago egiten gaituela, ahulago, hauskorrago. Geure izaera indibidual eta kolektiboa indartzeko aukerak modurik zozoenean ihes egiten digula. Joaten uzten diogula.



islatzen diren aritzen gara... Ingalaterran garbi ikusten da, prozesu honen bukaeran telebista izango dela gauza bat nork bere neurrira egingo duena. "Telebistak botatzen didana ikusiko dut" ez da izango. Norberak nahi duena ikusiko du, nahi duen lekuan, nahi duen garaian, nahi duen dispositiboan. Hortik urruti gabiltza oraindik, baina hortik dator etorkizuna. BBCk apustu handia egin du horretan. Balio handiko edukiak ditueenez, produktuak artxibategian gordeta eduki ordez, ikuslearen eskura jarri behar dira, telebista pertsonalizatu. EITBk ez dauka BBCk duen gaitasunik, baina haren jarduna hona nola egokitu pentsa lezake, aurrekontuaren mugak eta alde handiak kontuan izanda.

Zertan dira ingelesez besteko telebistak Erresuma Batuan? Galesez, gaelikoz...

Gaelikoak badu kate bat, BBC Alba izenekoa, 2008an sortu zena. Gaelikoz besterik ez du emititzen. Jakina, hura martxan jartzeko atzean arrazoi politikoak egon ziren, baina hala ere, BBCk badu Erresuma Batuko kultura ezberdinak zaintzeko erantzukizuna. Noski, 70.000 laguneko komunitateak audientzia txikia esan nahi du. Interesgarria gertatu zitzaidan proiektua bertatik bertara ikustea, jarraitzea, eta Eskozian jendeak proiektu hartan jarrita zuen ilusioa. Hemen go jendeak asko ikasi beharko luke handik. Musika aldetik, adibidez, oso eskaleta interesgarria daukate. Marrazki bizidunak ere asko emititzen dituzte, haurrei begira, jakina. Bestalde, Galesen bada S4C, gaelikozko telebista, eta askoz ere gaeliko hiztun gehiago dira Eskozian baino. Jarraitzen du oraindik. Hala ere, 2009an definizio handiko gaelikozko telebista hasi zen emititzen. Clirlun zuen izena, "argitasuna" esan nahi du. Inbertsio handia zen, audientzia mugatua zuen, eta handik bi urtera itxi egin behar izan zuten, murrizketak tarteko.

Bi hitz

"Idatzi egiten nuen, argitaratzea pentsatu gabe. Halako batean, nire idatziak forma hartzen ari zirela sentitu nuen. Orduantxe pentsatu nuen, akaso, egiten ari nintzen lanak liburu itxura har zezakeela bukaeran. Helburu finkorik gabe aritu nintzen idazten, askatasun osoz idatzi nuen, eta askatasun horren fruitu izan zen *Bi hitz*".

ETBren bi kateak behar al dira, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa? Hor dira beti hirugarrena eta Etsat.

Finean telebista herri bateko kultura, hizkuntza edo komunikazioa bultzatzeko tresna baliagarria da. Horregatik, euskarazkoa zalantzarik gabe behar da. Ikusi egin beharko litzateke, apustu fuerte bat egin euskarazko katearen alde eta emaitzak ikusi, audientzia eta beste. Baina ETB2 ixtea, esate baterako, ez zait errealia iruditzen, hemen badagoelako edukiak gaztelaniaz kontsumitzen dituen jendea. Oreka bat lortzean sinesten dut beti; nola bultzatu euskara eta kultura, nola aldatu jendearen ohiturak, nola egin apustuak bi kateetan kalitate eta pisu berdineko edukiak egiteko. Orain erdarazkoaren alde dago balantza, eta hori pena da.

Utzi ditzagun honenbestez BBC eta EITB. Idazle zaitugu. Azken liburuak *Txartel bat (des)herrira* du izenburu, irakurle batek baino gehiagok dakienez. Esadazu, nolakoa den Londren bizi zaren horren deserria.

Nire deserria neuk aukeratua da eta, hain zuzen, Euskal Heritik aldenteak bertara gerturatu nau. Beste perspektiba bat eman dit, orain hobeto ulertzen dut nire herria. Iruditzen zait hemen baditugula iraganeko mamu batzuk, eta horiekin borrokan gabiltzala etengabe aurrera pausorik eman gabe. Horiek atzean uztea beharrezkoa da aurrera egiteko, baina mamu horiekin borroka hori irabazteko betiko erregelek eta erretorikak ez dute balio. Uste dut arau edo erregela berriak definitzeko beharrezkoa dela beste batzuei entzutea, beste begirada batzuk hartzea edo distantzia bat jartzea. Kanpora irteteak horretan laguntzen du. Niri, behintzat, asko lagundu dit. Horregatik esaten dut gerturatu egin nauela. Literaturak eta idazle lanek, berriaz, are eta gehiago laguntzen didate distantzia hori moztzen, laburrago egiten. ■



Iparraldea berpizten

Laborantza lurren galera, bizitza eta identitatea galdu duten herriak, lanaren bidez irabazitako diruarekin bertan bizitzeko ezintasuna... Lurraren espekulazioaren ondorioz, herritarrek, batez ere gazteek bizi duten egoera latza da Ipar Euskal Herrian. Hori salatu asmoz sortu zen Lurra eta Etxebizitza kolektiboa.

| LIDE HERNANDO |

LURRAREN ARAZOARI erantzuna emateko duela 40 urte abiatutako borrokaren oinorde-tza hartu du 2007. urtean sortutako kolekti-boak. “*Euskal Herria ez da salgai: lurra defenda dezagun* lelopean, auto-formazioa, auto-kudeaketa eta auzolana oinarri dituen gazte langile talde bat gara”, dio Xabier Tubal Abrisketa kideak. Gehiengoa gaztea izateak badu bere arrazoiak: azken finean, horiek dira euren lurraldean lana lortzeko eta bizitzeko zailtasun gehien dituztenak, baita borrokan aritzeko grina handiena dutenak ere.

Helburu orokorra, egoera hau aldarazteko indarra duten talde eragile sozioekonomikoe-kin harremanetan jarri eta, epe luzera, eragile talde bakarra sortzea da, “zeinak arazoei bene-tako soluzioak proposatuko dizkion”, Abriske-taren hitzetan. Horretarako, antolakuntzan bi talde bereizten dituzte: bat salaketa ekimenak antolatu eta burutzeaz arduratzen dena, eta bestea hausnarketaz eta eragileekin harremanetan jartzeaz. “Bilkura luzeak egiten ditugu, eta horietan eztabaida sakonak edukitzen ditugu, auto-formazioa kolektiboaren oinarri sendoa baita. Arazo horri aurre egiteko, nola eta zerga-tik sortu zen jakin behar dugu lehenbizi”, dio Iker Goiñenetxe kolektiboko kideak.

“Kostaldea ez da gehiago bertako biztanleentzat”

Horiek Baionako etxebizitza agentzia bateko-ek esandako hitzak. “Kanpotarrentzat luxuz-ko etxebizitzak eraikitzea inbertsio hobea dela ikusi du Frantziako Estatuak, eta horren ondorioz, gaur egun Iparraldean 50.000 etxe huts eta bigarren etxebizitza daudela kalkula-tzen da”, zehaztu digu Abrisketak. Aurrei-kuspenek diote, gainera, 2020rako beste 45.000 etxe eraikiko direla. “Frantziako Esta-tuaren planifikazioan, iparraldea industria gunea da, eta hegoaldea erretiro goxoa eduki-tzeko zonaldea”.

Zerbitzu sektorearen gorakadaren aurrean, Euskal Herrian pisua galtzen ari da laboran-



tza. “Horrek esan nahi du bertan ekoizten dugun janaria ez dugula guk jaten, eta gainera, guk kontsumitzen duguna kanpotik ekarria da”. Zerbitzuetan sortutako lanpostu gehie-nak kostaldean daudenez, barnealdeko herrie-tako gazteek bertara joan beste erremediorik ez dute. Ondorioz, herriak hustu egiten dira eta bertako etxeak kanpotar aberatsek erosten dituzte, “lotarako herri” bilakatuz. Bizia eta identitatea galtzen dute, azken batean.

Salaketa

Kolektiboak udaldia baliatzen du salaketa ekimenak antolatzeko, jende gehien eta, batez ere, kanpotar gehien dagoen bolada. “Bes-teak beste, aspalditik hutsa zegoen etxe bat ireki eta egun batez kanpotarrei bertan bisita gidatua egin genien”, dio Goiñenetxek. “Donibane Lohizunen goi-mailako agentzia bat okupatu eta beste hamalau itxiarazi geni-tuen. Beste behin, bigarren etxebizitza duen familia batekin hitz egin nahi izan genuen. Batez ere, arazoa zein den azaltzeaz ardura-tzen gara”.

Lurraren prezioaren igoera oztopatzea eta kanpotarrak bertako ekono-mian inberti dezaten kontzien-tziatu: horiek dira Lurra eta Etxe-bizitza kolektiboaren bi ardatz nagusiak. ■



Maite dugun norbait hiltzen denean

Heriotza tabua da, hitzari berari bizkarra ematen diogu sarri, baina hurbil daukagu, gutxien espero dugunean zelatan. Heriotza bizitzaren beste aldea da eta onartu beharra dagoela ondo dakite maite dituztenen heriotza bizi izan duten askok. Hari horri tiraka, heriotzaz eta doluaz dokumentala egin du Iñaki Peña medikuak: *Aulki Hutsak*.

| IKER BARANDIARAN |

Argazkiak: Arteman Komunikazioa

IÑAKI PEÑAK asko daki gaiaz, lanbideagatik batetik, familian izandako heriotzengatik bestetik. Luzaroan aritu zen aparailuen laguntzaz arnasa hartzen duten gaixoak artatzen, eta zainketa aringarrietan ari da aspaldi honetan, maiz heriotza lekuko duela. 2007an aita hil izanak sorrarazitako zauria ezin izan du orain arte arindu, *Aulki Hutsak* erditu arte.

Dokumental deskriptibo, hezitzaile eta eraikitzailea da egindakoa, Peñak bere ibilbidean ezagututako hainbat profesionalen eta heriotza hurbiletik ezagutu duten lagunen testigantzekin osatua. Aspaldi konturatu zen heriotzak ez duela bueltarik eta horrekin bizi izaten ikasi behar dugula: “Mediku lanetan hasi nintzen lehenengo urteetan, heriotza zen lantzean behin topatzen nuen errealitate bat, batzuetan ustekabeen harrapatzen gintuen, beste askotan aurreikuspen saihestezina zen. Beti sendatzerik ez dagoela ikasten hasi nintzen, eta azken urte hauetan osatuz arintzera pasa naiz neurri handi batean”. Arindu nahi horretatik dator, hain zuzen ere, heriotzaren inguruko urteetako gorabeherak gizarteratzeko erabili duen erreminta, Osatuzetik Arintzera blog pertsonala. Blog horretan material ugari bildu du eta harago joan nahian, *Aulki Hutsak* ikus-entzunezkoa egiteari ekin zion: “Adituen eta heriotza gertutik bizi izan dutenen esperientzia eta irakaspenak uztartu nahi nituen, ikus-entzuleei zerbait hezitzailea eskaini eta zenbaitentzat arintzailea ere izatea. Onartu beharra daukat neure dolu pertsonala borobiltzeko modua ere izan dela”.

“Adituen eta heriotza gertutik bizi izan dutenen esperientziak uztartu nahi izan ditut, zerbait hezitzailea eskaini eta zenbaitentzat arintzailea izatea. Neure dolu pertsonala borobiltzeko modua ere izan da”

Iñaki Peña, medikua

Horretarako, Peñak gidoigile eta zinemazuzendari bihurtu behar izan du bere burua eta Arteman Komunikazioa enpresaren laguntza izan du bidean. 2012ko Gabonetan ideari forma ematen hasi eta protagonista izan zitezkeen pertsonak zerrendatu zituen. Horien bitartez harilkatu du kontakizuna.

Doluaz iritzi profesional eta pertsonalak

“Zer gertatzen da maite duzun norbait hiltzen denean?” azpizitua darama lanak, eta gertaera natural baina muturreko horren baitan bizitzen den prozesua aztertu eta azaltzen ahalegintzen da hainbat ahotsen laguntzarekin. Euskal Herriko osasungintzan, elkarte

eta erakundeetan erreferentziako adituak diren mediku, psikologo eta terapeutek sakontasunez deskribatzen dute hurbileko heriotzak nola eragiten digun, zein arrisku izan ditzakegun eta oro har horren atzean dagoen prozesua; baita, jakina, dolu lantzearen garrantzia eta aurrera egitea posible dela. Prestakuntzaz eta lanbidez adituak diren horiez

gain, emaztea, seme jaioberria, aita, anaia, gaixotasun larria zuen alaba, aitona edo beste senide zein hurbileko lagunak hil zaizkien hainbat herritarrek ere uzten dute euren testigantza, prestakuntzaz baino bizipenez jantzita dauden agerpen oso desberdinak erakutsiz. Halaber, heriotza guztiok zizelkatuta daramagun neurrian, dokumentalean ageri diren profesional bik heriotzarekin lotutako bizipen pertsonalak ere badituzte. Zuzendariaren aburuz, berebiziko garrantzia dauka horrek:



Goian, Iñaki Peña medikua, *Aulki Hutsak* filmaren bultzatzailea (eskuinean, kartela). Lau ataletan banatuta dago ikus-entzunezkoa: Mina, Haserrea, Egun Perfektuak eta Itxaropena.

“Balio erantsia da profesional moduan hitz egiteaz gain gure zauriak ere erakustea, ‘sendatzaile zauritua’-ren kontzeptua oso interesgarria baita, eta mediku eta psikologo banak horixe egin dute”.

Sentimenduak azaleratzea nabarmentzeko deritzo Peñak eta lan honek Euskal Herrian ezohikoa dena lortu duela gehitu du: “Zorte itzela eduki dut, lehenik eta behin dokumentalaren protagonistak diren pertsona hauek guztiak nire bizitzan topatu izanagatik, baina horrez gain kameraren aurrean arima biluztu dutelako, are gehiago geure herri honetan, eta euskaraz... Ikaragarritzko luxua da”.

Dokumentalaren gako garrantzitsuenetakoa da gaur egun arlo profesional horretan Euskal Herrian lanean dabiltzan erreferentziazko lankideak azaltzea. Baina Peñak balioa eman nahi izan die baita ere profesionalak izan gabe dolua landu ondoren beste batzuei laguntzeari ekin diotenak; hala nola, heriotza perinatalaren gainean laguntza eskaintzen duen guretxikixak.org bloga edo minbiziak aita hil ostean Minbiziaren Aurka-ko Elkartearen boluntario gisa aritzea erabaki duen laguna.

Lau atal nagusitan (gehi bat) banatuta dago ikus-entzunezkoa: Mina, Haserrea, Egun Perfektuak eta Itxaropena. “Lehenengoan kontzeptuekin abiatzen gara eta betebeteen jorratzen dugu doluaren gakoa, mina. Bigarrena gure gizartearen ohiko




erantzun bati buruzkoa da, haserrea; tristezia, ahulezia eta negarra ezkutatu eta haserrea erakusten dugu. Egun Perfektuak atalean diogu Gabonak, urtemugak, Domu Santu egunak... une egokiak izan daitezkeela maite ditugun horiek gogoratu eta omentzeko, baina askotan zama itzela sorrarazten digute. Itxaropena badagoela ere erakutsi dugu. Eta bukatzeko, epilogoak ezusteren bat ere eskaintzen digu”.

Gai honekiko kulturalki ditugun aurreiritzien kontra, orain arte dokumentala jendau-

IÑAKI BEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegitratzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com



Irudietan, filmeko hainbat fotograma. Euskal Herriko osasungintzan, elkarte eta erakundeetan erreferentziatzeko adituak diren mediku, psikologo eta terapeutek sakontasunez deskribatzen dute hurbileko heriotzak nola eragiten digun, zein arrisku izan ditzakegun eta oro har horren atzean dagoen prozesua; hainbat herritarrek ere utzi dute euren testigantza.

rrean eskaini den aldi gutxietan ikusleek aitortu dute *Aulki Hutsak*ek baikortasunera-ko eta esperantzarako tarte nabarmena gordetzen duela. “Aukera genuen bestelako bizi-penak pantailaratzeko, doluan trabatuta dauden pertsona batzuk elkarrizketatzea, depresio ilunean dagoenik, tunelean sartu-sartuta, edo amorru bizian dagoena. Baina hori ez zen nire asmoa. Nahiago nuen erakutsi heriotzak sorrarazitako mina eta hutsunea arinduz aurrera egin eta bizi daitekeela”, azaldu du medikuak.

Izan ere, Iñaki Peña nahiko luke lan hau ahalik eta gehien zabaltzea eta dibulgazioa du helburu nagusi. Edonori bizitako-a ulertzeko, indartzeko, modu positiboan sentitzeko, ondokoa laguntzeko baliagarria bazaio, poztuko litzateke; baita lankideei, beste profesionalei, lagungarria bazaie ere.

“Doluan trabatuta dauden bizi-penak pantailaratzeko aukera genuen, baina nahiago nuen erakutsi heriotzak sorrarazitako mina eta hutsunea arinduz aurrera egin daitekeela”

Iñaki Peña, medikua

Euskal izaera

Gai oso konkretuari lotuta badago ere, dokumentalari euskal izaera bermatzea izan da Peña-ren asmo irmoetako bat: “Lan hau Euskal Herri-kanpo ere erakutsi nahi dugu. Gure esperientziak berdinak edo antzekoak izango dira hemen edo Kuala Lumpurren, baina lan honetan agertu garenak gu gara, eta gure paisaiak eta gure musika. Gainera, Indiarantzko leihotxi bat zabaltu dugu, eta beste bat Amerikako Estatu Batuetarantz”.

Elkarrizketatu gehienak euskaraz mintzatu dira, nahiz eta baden gaztelania zein ingelesa erabili duenik ere. Dokumentalaren atal bakoitza kantu bati lotuta dago eta guztiak gaur egungo euskal musikariak dira, betiko patroietatik zertxobait aldentzen direnak. “Klasikoak albo batera utzita gure belaunaldiko bost abeslariren aldeko aldarri ozena ere bada *Aulki Hutsak*. Askorentzat


deskubrimendua izango dira, nahiz eta giro jakinetan oso ezagunak zaizkigun. Bide batez frogatu dugu hizkuntzak ez direla traba, norberak hala izatea nahi ez badu behintzat”.

Dokumentalaren zabalkundeari oztopoak saihesteko euskara, gaztelania eta katalunierazko azpitituluak egin dituzte. Elgetako Espaloia Kafe Antzokian aurre-estreinaldia egin ostean, herriz herri hasi dira emanaldiak eskaintzen, protagonisten udalerrietan lehenik. Horrez gain, Arinduz zainketa aringarrietako euskal elkar-tearen jardunaldietan proiektatu zuten, Bilbon; apirilean Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen biltzarrean ere ikusgai izango da Donostian; Euskal Herri-kanpo zabaltzeko atarian daude eta zinemaldi baterako ere onartu dute. Gainera, tailer bat prestatzen ari dira EHUrako.

Bidean izandako zailtasunak zailtasun, proiektuaren bultzatzailea oso pozik dago ikus-entzunezkoa izaten ari den harrerarekin: “Ilusioz, energiaz eta bihotzez egindako lana da. Bestela, krisialdi garaioan buruarekin bakarrik jokatzu gero, etxean geldituko nintzatekeen ezer egin gabe, finantzazioa lortzea izan delako zailtasun handienetakoak. Egin dugun emanaldi bakoitzean feedback berriak jasotzen ari gara, asegarria da zinez”.

Bukatzeko, Iñaki Peña beste behin nabarmendu nahi izan du heriotzari buruz hitz egiteak duen berebiziko garrantzia: “Denok ukitzen gaitu gai honek, etorkizunean gure seme-alabek ere prozesu hau pasako dute guregatik. Kontzientziatuta bagaude errazagoa da, nahiz eta batzuetan zaila den zeure heriotza onartzea, ezta?”. ■







INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Independentzia prozesuak 2014an

DESKOLONIZAZIO PROZESUAK alde batera utzita, historikoki estatu independente berrien sorrera gerren ondorioa izan da nagusiki, horrek ez du esan nahi denak independentzia gerrak izan direnik. Adibidez, I. Mundu Gerraren emaitzetako bat estatu berri askoren jaiotza izan zen zenbait inperioren desagertzearen esker.

Ezegonkortasun garaia behar dira independentzia eskuratzeko. Gerra izan daiteke ezegonkortasunaren adierazlerik hoberenetakoa. Baina zer gertatzen da herrialde bat politikoki eta sozioekonomikoki egonkorra bada? Posible ote da Mendebaldeko demokrazia-liberal egonkor batetik independizatzeko? Zaila da itsasoz beste aldeko lurak ez badira subjektua. Oso kasu historiko gutxi ditugu eskura. Irlanda eta Islandiaren independentziak bereziak izan ziren bi uharte direlako, hala ere, lehenengoak independentzia gerra bat behar izan zuen eta biek munduko gerra baten erdian gauzatu zuten prozesua.

Independentismoa Katalunian indartsuagoa da Eskozian baino, baina Eskoziak erreferenduma adostu du Londresekin, beraz, herriak horrela nahi badu independenteak izango dira. Aldiz, Katalunian ziurrenik ez da kontsultarik egingo Madrilek ez duelako baimenduko

Testuinguru baketsuan, Mendebaldeko herrialde demokratiko batean gauzatuako independentzia bakarra Norvegiakoa izan zen 1905ean. Baina, kasu berezia izan zen ere bai. Jatorrizko estatua Suedia eta Norvegia arteko konfederazioa zen. Horri erantsi dakioke erreferendumaren emaitza: %85,4ko parte-hartzearekin independentziaren aldeko botoak %99,95.

Gauzak horrela, sezesionismoa Mendebaldeko herrialde demokratiko liberekin ia gauzatu gabeko esperientzia da (Quebecen bi saiakera egin zituzten). Horregatik, 2014rako Eskozian eta Katalunian iragarri diren erreferendumei inflexio puntu bat markatu dezakete.

Espainiako Estatu eta Erresuma Batua “demokrazia” kontsolidatuak eta NATOko kideak dira. Azken horrek garrantzia du ere bai. Gustuko izan ala ez, errealitatea da independentzia prozesu gehienak gutxienez nazioarte mailako potentzia batek sustatu edota babestu dituela arrazoi geostrategikoengatik. Beraz, ez dirudi kasualitatea NATOko kideen artean sezesiorik gertatu ez izanak.

Independentismoa Katalunian indartsuagoa da Eskozian baino, baina Eskoziak erreferenduma adostu du Londresekin, beraz, herriak horrela nahi badu independenteak izango dira. Aldiz, Katalunian ziurrenik ez da kontsultarik egingo Madrilek ez duelako baimenduko, ondorioz, lehenago baino beranduago hauteskunde plebisitario batzuen aurrean egongo gara. Eskoziak independentziari baietza ematen badio, azkar egingo dira hauteskundeak Katalunian, baina ezezkoa ematen badio 2015 edo 2016ra arte itxaron beharko da. Hauteskundeak zerrenda independentista batek irabaziko balitu, munduko herrialde gehienek independentzia lortzeko erabili duten formula berdina erabiliko lukete: alde bakarreko independentziaren aldarrikapena. Hurrengo egunetik aurrera Espainiak ez lituzke zergak jasoko Katalunian, baina, Espainiako Estatuak independentzia onartuko ez balu, Kataluniari “dago-kion” zorraren parte berea izaten jarraituko luke. Orain Espainiak zor hori ordaintzeko lanak baditu, Kataluniak ekoizten duen espainiar ekonomiaren ia %20rik gabe ezinezkoa izango luke.

Egoera horren aurrean, AEBetatik eta Alemaniatik presio ikaragarriak iritsiko litzaizkioke Espainiari Kataluniaren independentzia negoziatzeko. Horrela, Kataluniak zorraren parte bat hartu eta bideragarriagoa egingo luke zorraren ordainketa. Jatorrizko estatuan (Espainian) ezegonkortasuna (sozioekonomikoa eta politikoa) eta kanpo potentzien interesak (zor ordainketa) uztartu egingo lirateke Kataluniako kasuan, sezesioa gauzatzeko eredu zaharra, baina mendebaldeko eta NATOko herrialde batean. ■





Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA

Ospe txarra


OSPE TXARRA hienen aldamenean joan izan da memoria dudanetik. Duela denbora bat Jesus Mari Olaizola *Txilikuren Piztiarioak* liburuan deskubritu nuen orain hienez dakidan gutxia, nahikoa bai, nolahi ere, eremu zabaletan bizi ohi den animaliaren gaineko iritzia aldatzeko. Ospe txarrak zizelkatutako irudia egile zaraizarrak jasotzen duen deskribapenarekin bat zetorren: “(...)Kutsu ezkor eta negatiboa izan du beti: zikina, sarraskijalea, likitsa, faltsua, berekoa eta zekena”. Tradizioaren baitan gizakiek beren buruaz izan duten pertzepzioa jasotzen du *Txilikuk*: “Antzinakoentzat, inola ere, hiena animalia arraroa eta gutxi fidatzekoa bilakatzen zuena bere sexujoera ez oso garbia zen. Ovidioren *Metamorfosiak* liburuan aipatzen da hienak sexuz aldatzeko ahalmena dutela, eta hartatik hartuta edo, halaxe jasotzen du *Physiologus* kristauak ere: “Orain arra den moduan izan daiteke gero emea, eta likitsa eta zikina da, bere natura nahierara aldatuz”. Berrikiago zientziak bere argibidea eman dio pikarta deritzon hiena motari. “Hiena pikart emeak sexu organo oso bitxia du: alua edo bulba ez da ikusten, eta klitoria oso garatua du, arren zakilaren pareko. Bestalde, (...) hiena emeak, menderatzaileak batik bat, ar itxura handiagoa izan ohi du arrak berak baino, are gehiago, arren aldean emeak handiagoak eta oldarkorrak izanik, diren bezala”.

Hienen ospe txarrak feministen ospe txarrera eraman dit gogo. Alferrik egindako konparaketa ez dela frogatzen du, gainera, XVIII. mendeko pasadizo batek. Gizon-emakumeen eskubide berdintasuna eskatzen aurrenetariko izan zen Mary Wollstonecraft idazle eta pentsalari ingelesak 1792an *A Vindication of the Rights of Woman* argitaratu zuenean, garaiko kontserbado-

reek beren gorrotoa askatu zuten eta “hiena gonaduna” ezizenez bataiatu.

Hiena emeen izen txarra arrekiko alderapena egitetik dator: arren itxura handiagoa dute arrek berek baino, arrak baino handiagoak eta oldarkorrak dira, eta bere genitalak arrarenekin konparatuz deskribatzen dira. Arra da neurria eta hienaren estigma emetasun araututik ateratzea. Feministon ospe txarraren arrazoiak ez dira ibiliko horretatik urrun, nahiz feminista bakoitza bere amaren alaba izan eta batzuk besteak baino ospe dezente txarragoz zipritindu, edo are, instituzioek fagotizatutako feminismo hainbatek ospe onaz ere gozatu.

Fama txarra ez dugu guk irabazi, ordea, ipini egin digute diskurtso nagusiaren bozgorailuek, hain justu, feministoaren tradizioa ozta-ozta aurkigarri egiten duten horiek beroriek. Gaur, abortuaren lege erreformaren aurkako aldarriak eta ekintzak batzeko ordua dugun honetan, nago feministon aldera makurtzen den ospearen itzalak erreformari bidegabea eta atzerakoia irizten dion hainbaten ahotsa eta pultsua feministongana batzea zailtzen duela. Orain arte borroka feministara gehitu ez direnak orain uholdeka ez dira, noski, elkartuko. Guk, alabaina, ondo dakigu abortua eskubide bat dela eta aho batez errepikatzen dugu: “Gure gorputza, gure erabakia. Abortua seguru, libre eta doan”. Badakigu abortutik haraindi doala hau. Erreforma-asmo hipokrita eta klasista honek gure gorputzen gainean eta gure bizitzen gainean erabakiak hartzeko eskumenak kentzea du helmuga, baita gure gorputzen gaineko kontrola ere. Niretzat momia legegile kontserbadore horien diskurtsoan ospe txarduna izatea ohorea da. Euren ametsetan hiena likits baten gainean trostan doan hura izan nahi nuke. Zenbaitez hobe litzatekeen jendarte justu baten alde zaudeten lagun guztiak feministen eta hienen aldamenean agertuko bazinete amets horietan. ■



Antton Olariaga



Mikel Irizar

TOPAGUNEKO PRESIDENTEA ♦



DANI BLANCO

Euskaltzaleen topaguneak

MARTXOAN etorriko dira bi urte Topagunearen presidente izatea onartu nuenetik eta, hartutako konpromisoa beteta, kargua utzi egingo dut Batzar Nagusiak aukeratuko duen ordezkarearen eskuetan. Paraleloan, utziko dut baita ere kargu honi lotuta hartu nuen beste, alegia, TOKIKOMen presidentearena.

Kargua hartzean esan nuen urte luzez ibili izan naizela euskalgintzaren periferian, hainbat jarrerarekin ez oso ados. Kargua uztean esango dut orain bat egiten dudala erabat Topagunea bultzatzen ari den euskaltzaleen mugimendu eraldatuarekin. Zer ikusi dudan tartean? Ba ondokoak, behintzat.

Ikusi dut lantalde bat oso konprometitua, bai federazioan eta bai herrietan. Hain konprometitua, gai izan dela azken hiruzpalau urteetan eraldaketa prozesu sakonean sartzeko eta horrek eskatzen zuen gainkarga hartzeko, krisiaren gordinenari sendo erantzuten zion bitartean.

Ikusi dut euskaltzale asko biziberritzen, urteen poderioz pilatutako ajeez jabetu eta berrikuntzarako jarrera hartzen, eta erosotasun esparruei uko egiten euskararen normalizazioak zerbait gehiago, zerbait berria eskatzen duela antzemanda.

Ikusi dut hainbat aditu izendun lankidetzan lotzen eta taldean bateratzen, jakintza partekatzen eta ikerketa bideratzen, hiztun komunitatearen ahots propioa

lantzeko eta euskara jendartearen erdigunean kokatzeko helburuarekin.

Eta ikusi dut dinamika horren eragin ona herri erakunde eta euskalgintzako beste hainbat eragilerengan, eta nola zubiak ari diren eraikitzen hizkuntza normalizazioaren lehen baldintza indar metaketan jartzen

dugunon artean.

Ikusi ditut bestelakoak ere, noski, iraganean periferian egotera bultzatu izan nautenak: batzuen ziliborkeria bakarzalea, besteen beldurra mugitzeko, hangoen eta hemengoan joera sektarioak. Baina faktore ezkor hauek ez dute alternatiba bat osatzen, gainditu beharreko erresistentziak dira. Eta ikusi dut bakarren bat gainditzen ere.

Beraz, martxoan kargua utziko dut baina ez mugimendua. Zinez uste baitut euskarak topaguneak behar dituela, zoru komunak eta esparru partekatutak

edozein euskaltzale eroso sentiaraziko dutenak. Eta hain zuzen hor metatuko den —metatzen ari den— aldeketasun soziala faktore erabakigarria izango dela euskararen normalizazioan nabari diren sabai batzuk apurtzeko eta jauzi garrantzitsuak egiten jarraitzeko.

Euskaltzaleen topagune horiek behar direlako segituko dut bultzatzen Topagunea. ■

Martxoan kargua utziko dut baina ez mugimendua. Zinez uste baitut euskarak topaguneak behar dituela, zoru komunak eta esparru partekatutak



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Mila aldiz

DIOTENEZ, gezur bat behin eta berriz errepikatzearen ondorioz egia bilakatzen da maiz. Horri buruz ongi dakigu hemen. Azken aldian ordea, pentsatzen nabil zer pasatzen ote den egia behin eta berriz errepikatzen dugunean.


Herri honek egia ugari ditu bere baitan, pertseberantziak errepikatuak, urteetan zabalduak. Urtarrilaren 11n entzun genituen egia horietako batzuk, asko errepikatuta ere, zentzu bera mantentzen dutenak eta indarrik galtzen ez dutenak. Beste egia batzuk ordea ez ziren hain zaharrak, edo ez batzuok askotan errepikatutakoak, baina egia horiek denak batu

ziren, ikuspuntu eta prisma ezberdineko egia osoago bat-edo osatzeko.

Hurrengo egunetan narrazio ezberdin ugari irakurri eta entzun dugu hain hain, horiek ere nahikoa errepikakorak, eta denak egia direlakoan kontatuak.

Baina tira, momentuak historikoak direla pentsatzen dugunean, kanpoko gezur errepikakorren aurrean, gurea egia go dela sinetsi behar dugu; denon artean. Izan ere, orain eraikitako egia kolektibo eta sendo horiek baitira, hamarkadak pasata ere, errepikatzen jarraitzen ditugunak. ■





Beñat Zarrabeitia

♦ KAZETARIA

Herritarren protagonismoa aurrera egiteko

AZKEN HILABETEETAKO gertaera guztien analisi egokia egiteko oraindik denbora beharko bada ere, dagoeneko konstatazio argi bat egin dezakegu: euskal jendartearen gehiengo soziala osatzen duen masa transbertsala ez dago prest Espainiako Gobernuak konponbidearen aurka jartzen dituen traba eta oztopoak onartzeko. Herrira-ren edo EPP-Kren kontrako erasoak arbuia-tu ditu gehiengo batek, Estrasburgoko epaia, preso politikoen urrats berriak zein urtarilaren 11ko mobilizazioa hauspotu eta txalotu ditu.

Inboluzioaren estrategia errekerperatu du Moncloak, ETaren biktima jakin batzuen, lobby ultraeskuindarraren eta Guardia Zibilarren zein Velasco epailearen magaletan. Egoera horrek Euskal Herriko pertsona asko sumindu ditu, sigla zehatzen gainetik. Izan ere, prozesuaren eta unilateraltasunaren klabe nagusietako bat Euskal Herrian konponbidea erdiesteko baldintza egokiak sortzea da. Pieza bat mugituz, partidaren nondik norakoak aldatzea. Gobernuak fitxak kontrako norabidean kokatu dituen arren bertan akordio soziala existitzen dela nabari da. Bai, ñabardurekin, euskal jendartearen gehiengo bat politika eta eskaintza sozial berriak eskatzen ditu norabide anitzetan, besteak beste preso politikoen auzian giza eskubideak errespetatu eta aurrera urratsak emateko.

Bilboko mobilizazioa horren erakusle da. Ez zen siglen batuketa hutsa izan,

nahiz eta halabeharrez deitzai-leak alderdi nagusienak eta bozkatuenak izan, hortik askoz haratago doan zerbait baizik.

Zoritzarrez, gatazka, sufri-mendu eta polarizazio politiko gordin baten testuinguruan, herritar asko alderdi edo kultu-ra politiko jakin baten atzean enkolumnatuta ikusi ditugu, baina jada jendarte ikuspegi berri bat pertzibitzen da. Askoz

*Siglak gaintitzen
dituzten gehiengoak
eratu behar dira*


irekiagoa eta konponbidearen beharrean bat egiten duena. Konfluentzia horren aurreneko puntuetako bat espetxe politikaren aldaketa da.

Siglak eta posizio politiko estankuak gaintitu behar dituzten gehiengoak eratu behar dira. Aldaketak eragitea posible delako, herritarrok protagonismoa hartu behar dugu. Pertsona askoren nahia eta energia biltzean helburua gertuagoa izango da. Komunikazioa, konbentzimendua, konpromiso maila ezberdinetatik abiatuta, dogmatismorik gabe eta sentsibiltate ezberdinen arteko pertsonen arteko sedukzio eta lana bateratuarekin.

Ziurrenik, 1989ko udan, norbaitek Berlingo harresia handik gutxira eroriko zela esan balu zorrotzat hartuko zuket. Baina bizitza, mundua eta historia, posible egin diren ezinezko gauzez beterik dago. ■



IRITZIAREN LEIHOA



1/ 14	JOLASEN TXOKOA 18:00etan Begoñako udalategian
1/ 15	JOLASEN TXOKOA 18:00etan Errekaldeko udalategian
1/ 16	JOLASEN TXOKOA 18:00etan Castañoseko udalategian
1/ 18	JOLASEN TXOKOA 11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
1/ 21	BAPATEAN ZIRKO 18:00etan Begoñako udalategian
1/ 22	TOR MAGOA 18:00etan Errekaldeko udalategian
1/ 23	BAT, BI, HIRU... FESTA! 18:00etan Tiboli eskolan
1/ 25	PUSKI ETA TXURRUSKI 11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
1/ 28	SUKALDARITZA TAILERRA 18:00etan Begoñako udalategian
1/ 29	SUKALDARITZA TAILERRA 18:00etan Errekaldeko udalategian
1/ 30	SUKALDARITZA TAILERRA 18:00etan Castañoseko udalategia
2/ 01	SUKALDARITZA TAILERRA 11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
2/ 04	INAKI EIZMENDI. GURASOENTZAKO HITZALDIA 18:00etan Begoñako udalategian
2/ 04	ANTZEKIZUNA TXOTXONGILO TALDEA 18:00etan Begoñako udalategian
2/ 05	ROSA MARTINEZ-EN TXOTXONGILOAK 18:00etan Errekaldeko udalategian
2/ 06	ATE JOKA ANTZERKI TALDEA 18:00etan Tiboli eskolan



«Alienatuta gaude gazteak, salbaziorik ba ote daukagun? Baietz pentsatu nahi dut»

Glaukoma mutil tolosar, donostiar eta irundarrez osaturiko taldea da, Bonberenea Gaztetxearen inguruan sortua. Bigarren diskoa plazaratu berri dute, Vol 2, lehen diskoan urratutako bidea sendotzera datorrena. Juantxo Arakama abeslari eta hitzen egileak azaldu dizkigu nondik norakoak.

| IKER BARANDIARAN |

Argazkiak: Bonberenea Ekintzak

GLAUKOMA begiko gaixotasun larria da, eta zenbaitek mariohuanaz arintzen du gaitzak eragindako mina. Juantxo Arakama (ahotsa) eta Iker Pando (gitarra eta ahotsa) ikaskideak Jokin Albisuarekin (gitarra) gitarra klasikoaren kalean reggae musika abesten hasi ziren orain dela lau pabost urte. Are gehiago zaletu zirenez, 2010ean Asier Arandia (baxua) eta Pablo Rubio (bateria) batu zitzaizkien eta taldea sortzea erabaki zuten Tolosako Bonberenea Gaztetxearen inguruan. Glaukoma taldea bilakatu zen beraz, haien (eta gure) mina arintzeko bidea. 2011n Tolosaldeako beste hiru talderekin batera *Sputnik 11* izeneko bilduma kaleratu zuten. 2012an heldu zen taldearen lehen diskoa (*Vol.1*) eta zur eta lur utzi gintuzten: sinesgarritasun handiz egindako reggae, rap eta ragamuffina euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Sasoi batean isilik egon ostean, 2013ko udazkenean *Vol.2* eman zuten argitaratu, eta Japoniara joan ziren biran. Bigarren disko hau ilunagoa, raperoagoa eta askoz landuagoa da, ñabardura ugari du, eta Juantxo-ren hitzak are eta borobilagoak dira. Gazteak dira, baina musikari eta hitz sortzaile onak, eta Euskal Herrian hain ohikoak ez diren estiloak lantzen ziurtasun handia erakutsi dute, pauso txiki baina irmoak eman baitituzte. “Argi daukagu nora joan nahi dugun, baina horretarako zalantzak gaingitu behar dira”, diosku taldeko abeslari eta hitzen egile Juantxo Arakamak.

“Musika bera alienazioarako tresna bat izan daiteke, edo alienazioaren aurka borrokatzeko tresna bat, erabilpenaren arabera”

Agerian da disko honetan estilo eta sonoritate mota asko landu nahi dituzuela.

Bai. Reggaea eta rapa ardatz izanik, bi estilo hauen inguruan dabilen edozein soinu izan daiteke guretzat egokia: dancehall-a, drum&bass-a, dubstep-a...

Kantuak are eta jantziagoak dira disko honetan. Zaila izaten da kantuari akabera ematea?

Disko honen sorkuntza prozesua nahiko luzea izan da. 2013ko otsailean hasi eta abuz-

tu arte aritu ginen kantua sortzen kontzerturik eman gabe. Azken unera arte aritu ginen kantuei bueltak ematen eta konponketetan. Bueltak asko ematen dizkiegu abestiei, bai.

Urtero konstanteak izan eta 7 kantuko iraupen ertaineko diskoak kaleratu. Planifikazioa?

Urratsez urrats egiten dugu. Badakigu hurrengo pausoa zein izango den, baina horren atzetik etorriko dena eman beharrek hurrengo pausu horrek esango digu. Bonbereneako azpiegiturak ahalbidetzen digu hori.

Egunon izango da seguruenik ajeari buruz eta, hein batean, gau-egunaren dikotomiari buruz idatzitako kantu sinesgarri eta deskriptiboena. Musika mundua eta musikariak gauari lotuta egongo dira beti?

Uste dut musikariek musikari bezala ez daukatela zertan gauari lotuta egon, pertsonak



gara gauari lotuta gaudenak. Hala ere ezin dut musikarik gabeko gaurik imajinatu, hori egia da.

Oihaneko hotsak buruan ditudala idaztet. Non kokatzen duzu oihana? Zein 'animaliak' inspiratzen zaituzte?

Oihana nire burua da idazten ari naizenean. Mundua ere bada oihana, gure ingurunea, "ni"-a osatzen duen guztia ia-ia. Mundu horren hotsak buruan izaten saiatzen naiz idazterakoan. Bi hankadun animalia asko daude gure zementuzko oihanetan, inspiratzeko modukoak.

Glaukoma deskubritzean gehien harritu ninduen izan zen gazte zuri gipuzkoar batzuek raggamuffina, reggaea eta hip-hop-a hain

Jauntxo Arakamaren ustez (ezkerretik hasi eta bigarrena), "dantza, melodiak eta erritmoak unibertsalak dira, pertsonak bezalaxe; hala egiaztatu dugu Japonian".

modu sinesgarrian egitea. Gaur egun, edozein esparru geografikotan landu daiteke edozein estilo ondo? Internetek ahalbideratzen du?

Berdin zaio jatorria edo non bizi zaren, garrantzitsuena egiten duzun horretan sines-tea da. Internet sekulako tresna da munduko edozein txokotako edozein musika aurkitzeko. Zalantzarik gabe, gauzak erraztu egin dizkio mundu guztiari.

Euskal Herria igandero 'Viendo el Conquis', ta atzo juergan trago bat 'con Goñi y sus compis'... Zuek kalea ondo ezagutzen duzue. Euskal Herriko gazteok Espainiakoek bezala, jada ez daukagu salbaziorik? Alienatuta gaude?

Euskal Herriko gazteak, Espainiako gazteak eta sistema kapitalistaren agindupean dauden herrialde guztietako gazteak gaude alienatu-



HAMLET

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
23 Santurtzi	1 Bermeo	1 Elorrio	4 Donibane Garazi
24 Tolosa	2 Oñati	2 Otxandio	10 Eibar
25 Hondarribia	28 Lekeitio	7 Zumarraga	11 Andoain
26 Arrasate		9 Ziburu	12 Bidarte
31 Basauri		14 Beasain	26 Aulesti
		15 Markina	
		20 Erandio	
		21 Arrigorriaga	
		22 Biarritze	
		28 Ermua	
		29 Igorre	

www.hamlet.kz



ta. Salbaziorik ba ote dauka-
gun? Pentsatu nahi dut baietz.
Musika bera alienaziorako
tresna bat izan daiteke edo
alienazioaren aurka borroka-
tzeko tresna bat, erabilpena-
ren arabera.

**Hip-hopak gero eta indar han-
diagoa hartu du taldean.**

Ez dugu modu kontzientean
egin, baina egia da rapak indar
handiagoa duela aurreko dis-
koan baino. Hala ere ez ditugu
dancehall eta raggamuffina
ahaztu.

**Euskararekin batera, ingelesa
eta gaztelania ere erabiltzen
dituzue. Metrikak erakarrita?
Bestelako publikoari ere mezua
heldu nahian?**

Ez bata eta ez bestea. Euskara
eta gaztelania egunerokoan
erabiltzen ditut, baita ingelesa
ere, musika entzule gisa. Idazterakoan ez diot
nire buruari inolako mugarik jartzen, gorpuz-
taz eskatzen didan moduan egiten dut.

**“Hitza lan eskerga, sorkuntzaren zerga, hez-
kuntza-sistemak ulertzen ez duen jerga”. Eta
paradoxikoki hip-hopa da gaur
egun gazteei mezuak helaraz-
teko modu eraginkorrenetako
bat, ezta?**

Bai. Badago Public Enemy
taldeko Chuck D famatuaren
esaldi bat: “Rap-a da beltzen
CNNa”. Musika beti dauka
ahalmen horixe, jendeari
mezuak helaraztekoa.

**Bidenabar, bertsolaritza hain ondo baloratuta
dagoen honetan, hip-hopak underground ezku-
tuenean jarraitzen du.**

Hala dirudi. Dena den ez naiz ausartzen
undergrounda zer den esatera, beste batzuen-
tzat zeregin hori.

**“Musu-truk egindako lanaz bustita gure notak,
zuei esker dirau burujabetzaren errotak” esal-
diak balio dezake zuen burua eta jarrera defi-
nitzeko?**

Esaldi horrek, *Haritik tiraka* abestiak bezala-
xe, Euskal Herrian kultura autogestionatu bat
sortu eta mantentzeko lanean diharduen jen-
dea omentzeko balio du. Guretzat eredu dira
pertsona eta talde horiek, eta saiatzen gara
haien jarrera antzekotzen eta eurengandik
ikasten.



***Lejos del silencio, besteak
gutxietsi gabe, poesia hutsa
da... Zer dute bat Glaukomak
eta Lagrimas de Sangrek?***

Ikerrek Bartzelonako Lagri-
mas de Sangre taldea ezagutu
zuenean txundituta geratu
ginen. Haiei ere asko gustatu
zitzairen gurea eta proposatu
genien kantu bat osatzea dis-
korako. Batzen gaituena
musikarekiko maitasuna da
eta gustatzen zaiguna egiteko
borrokatzea. Microbio
MCren leloak dion bezala:
“*Yo no tengo miedo, eso no me
asusta, yo he venido al mundo
para hacer lo que me gusta*”.
Uste dut bete-betea asmatu
zuela esaldi horrekin, bi tal-
deok bat egiten dugulako.

**Bada Euskal Herrian hip-hopa-
ren inguruko talde eszenarik?**

Euskal Herrian zenbat esti-
lo-eszena dago? Nik badakit euskal eszena
bat dagoela, baina hortik aurrera ez dakit
besterik...

**Hip-hopak barrura begiratzea eta psikoanalisia
ditu oinarrian *Al beat de hits* kantuak erakus-
ten duen moduan?**

Bai. Rapak, musikak oroko-
rrean eta koaderno ziztrin
batek, beti balio dezakete
edozeren inguruan idazteko
edo abesteko. Norberaren
korapiloak eta galderak ere
abestu daitezke. Entzuten
duenarentzat edota abesten
duenarentzat aberasgarria

izan daitekeen edozer sartu daiteke abesti
batean, zergatik ez?

Zeren bila joan zineten Japoniara?

Gure nahia Bonberenea ordezkatzeko izan zen
hasieratik, gaztetxetik hainbeste talde japo-
niar igaro ondoren. Nik pertsonalki egiaztatu
dut, nahiz eta kultura ezberdin bat izan, beste
kontinente batean egon eta hizkuntza eta
beste hainbat gauzez ezer ez ulertu, ez garela
hain ezberdinak. Are gutxiago musika bada-
go tarteko. Dantza, melodiak eta erritmoak
unibertsalak dira, pertsonak bezalaxe.

**Zer daukate hip-hop, reggae, jun-
gle, dub eta antzeko doinu bereok
zuek hainbeste erakartzeko?**

*Flow-a. Flow-rik gabe ez dago
ezer.* ■



**“Kultura autogestionatua lantzen
duten pertsona eta taldeak
guretzat eredugarriak dira eta
ahalegintzen gara horien jarrera
imitatzen”**

«Poesia aiztoa da, kalashnikovaren aurka borrokan»

Haiti aske eta demokratikoaren aldeko ekintzaile eta poeta urtarilaren 4an hil zen, Parisen, 76 urte zituela. Mintzaira eta joskera sinplean, arrazakeriaren aurka oldartu zen sarritan bere poemetan.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

FAMILIA HANDI bateko semea, 1959an sortu zen Jacmelen, Haitiko hego ekialdean. Hogei urte zituela, matematika eta natur zientziak irakasten hasi zen. Handik gutxira baina, François Duvalier *Papa Doc* heldu zen agintaritzara, eta hark ezarritako diktaduraren ondorioz, atzerriko bidea hartu behar izan zuen Métellusek. 75 dolar besterik ez omen zeramatzan patrikan. Parisen finkaturik, medikuntza ikasi eta neurologian espezializatu zen, hain zuzen afasian eta burmuineko lesioek eragindako hizkuntza arazoetan. Eta hala, poesiak baino lehen, Paris inguruetako ospitaletan terapeuta aritu izanak eman zion sona munduan barrena. Linguistikaren ere doktoratu zen Sorbona Unibertsitatean.

Haitiko beltz guztien kasuan bezala, Métellusek esklabotzaren arrasto garbia zuen deitura. Plantazioetako jabeek, izen afrikarra ostu eta gogoak emandakoa ematen zieten beren esklaboei; poetaren arbasoen kasuan, Métellus. “Nondik datorren ahamtzi gabe daramat izena”, argitu zuen inoiz.

Claude Mouchard sendagile eta idazle gaztearen eskutik heldu zen literatur mundura, eta Aimé Césaire, André Malraux eta Maurice Nadeau izan zituen lehen aita ponteak. 30 urtetan sortu zituen lehen poemak, bizitzan gehien baliatu zuen hizkuntzan, alegia frantsesez. Gerora sarritan azaldu zuenez, “somniaambulismo moduko batek jota” hasi zen idazten, “egiten ari nintzenaz ez nuen sobera kontzientziarik, baina jarraitu beste erremediorik ez nuen izan, ordurako ezin bainion idazteari utzi”.

Lehen poema haiek 1969an ikusi zuten argia, Maurice Nadeauren *Des Lettres Nouvelles* eta artean Jean-Paul Sartrek zuzentzen zuen *Temps Modernes* aldizkari literarioetan. Ia hamar urte geroago heldu zen *Au Pipirite Chantant*,



GERALD BLONCOURT


Jean Métellus
(Jacmel, Haiti 1959
- Paris, 2014).

bere poema-liburu ezaguna. Hogeita hamar bat obra ondu zituen haren atzetik, poema-liburuak ez ezik, baita antzerki obrak, saiakerak eta nobelak ere tartean, “zuntz poetikoz josiak denak”.

Metéllus poeta eta sendagileak oso gogoan izaten zuen bere terapeuta ofizioa luma hartzen zuenean. Poesia zer den definitzea eskatu zitzaizlarik, “gizakiaren erresistentzia indarrak tinko eta bizirik mantentzen dituen nerbioa da”, aipatu zuen behinola.

Eskainitako azken elkarrizketan –2013ko abenduan, hil baino hilabete lehenago– Frantziako gizartean areagotzen ari den arrazismoaz mintzatu zen Métellus. Ildo horretan, poesia arma ote den galdetu zion kazetariak, eta hark erantzun: “arma da, baina mugatua: poesia aiztoa da, kalashnikovaren aurrean”. ■





Helduen Literatura | POESIA

Bizitzaren atea dukegu heriotza

Joxan Artze

Elkar, 2013

Aldatzen dena eta ez dena

DEIAKO *Ortzadar* gehigarriak aztertu genuenean Artzeren itzulerako lehen liburukia, alegia, *Heriotzaren ataria dugu bizitza*, genioen poema bakar luze bat osatzen zutela pieza labur indibidualek. Bada, bigarren emanaldi lez libratu digun *Bizitzaren atea dukegu heriotza* (Elkar, 2013) honekin argi gertatzen da zazpi liburutan Artzek eskainiko digun lana manual bat izango dela debozionekoa; lehenean irakasten dira tonu nagusiak –filosofia, introspektzioa, metafisika– bigarrenetik aurrera gaztigaturiko irakurleak erabaki dezake jarraitu edo ez otoitz antzeko lan altu honekin, non faktoreen konbinazioak ez baitu emaitza aldatzen, soilik erritmoa eta bidezidorra xedatzen.

Nik hautua egin dut: Artzerekin noa ideia eta emozioen labirinto honetan azken bururaino. Distira berezi bat dauka bere lirikak bihurtzen duena naïfa eder, eta beste edozeinek pedanteki idatziko lukeena sakon. Indiako santuek ere ulertu zuten halako batean arima ondoen laztantzen duena poesia dela.

Isiltasunaren eta esanaren arteko esplorazioa da hemen ageri dena beste behin. Beste behin lanbroak ezkutatzen dizkigun bazterrak: “ez zaitugu ikusten/ begiz ikusi nahi zaitugulako,/ ez zaitugu entzuten, ezin zu ukitu,/ belarriz entzun eta/ eskuz ukitu nahi zaitugulako, // eta Zu, urrutiegi

egon/ eta hurbilegi, batera/ begiz ikusi, belarriz entzun/ eta eskuz ukitu ahal ukaiteko...”. Paradisua beraz ez dago inon, paradisua da dena. Deneda. Hura ikusteko begiek izenak eta formak abandonatu behar dituzte, utzi egin behar diote egia fabrikatzeari.

Ez da poesia kriptikoa, ez da zaila, ez da erraza. Onik eta txarrik gabeko orrialdeotan beraz, miresgarriak dira Artzeren zubiak bakoitzaren ibai ertz pertsonaletara iristeko. Eta oraindik ikasten dabile-naren freskotasunarekin darabil betiko hitza poetak. Nabari da hautapen bat zehatza, lanketa bat fina, kondentsazioari ematen diona gradu bat gorena, ia sentsuala. Heriotzaz ari denean ere klasikoki dotore ageri da: “mihi hau zertarako ez badut zurekin mintzatzeko?”, edo “Ez dea bada hunkigarria/ ikustea, nola den/ arrosatxo xurigorria/ (...)/ damurik gabe kiskaltzen”.

Betiko elementu ezagunekin eginak, erabiliz eta berrerabiliz liliak edo izarak, oparitzen dizkigu erakuntza berriak Artzek. Hauxe ote da azken labirintoa? Hauxe ote da ariketa-liburu definitiboa, mila aldiz birformulatu daitekeena? Iritsi ote gara iturburura? ■

Igor Estankona



**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

**gure
artean
euskaraz**




**BIZKAIA
BIZIA**

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Josune Irabien Amurrioko alkateak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Erraza

			7		9		3	8
	6						5	9
		9	1	5		6	2	7
	9	3		1	6			
			3	2		9	6	
4	1	8		7	3	5		
2	7						8	
9	3		2		4			

Zaila

8		4				1	2	
	5					3	4	
	3			1	2			
9			1	8			3	
			9	3	4			
	4			2	5			1
			2	6			1	
	6	2					8	
	1	7				6		2

Zeharretara eta goitik behera,
hitz bera.

- 1.-Emakumea gurasoekiko.
2.-Kalitatearen marka. 3.-Trebea.
4.-Zuberoako mendatea. 5.-Pozkorra.

Motorrean



- Gaur motorrean ziztu bizian zihoan bati “astoooo!” esan diot eta berak “ixilik egon hadi, txoroi!” erantzun dit.
- Eta?
- Talka egin du astoaren kontra!



Erraza

1	5	2	7	6	9	4	3	8
8	6	7	4	3	2	1	5	9
3	4	9	1	5	8	6	2	7
7	9	3	8	1	6	2	4	5
6	2	1	9	4	5	8	7	3
5	8	4	3	2	7	9	6	1
4	1	8	6	7	3	5	9	2
2	7	5	6	9	1	3	8	4
9	3	5	2	8	4	7	1	6

Zaila

8	7	4	3	5	6	1	2	9
2	5	1	7	9	8	3	4	6
6	3	9	4	1	2	5	7	8
9	2	6	1	8	7	4	3	5
1	8	5	9	3	4	2	6	7
7	5	3	6	2	5	8	9	1
4	6	2	5	7	1	9	8	3
3	1	7	8	4	9	6	5	2

Puzzle:

“Zenbait bilera euskaraz egiten ditugula esan dezaket. Eta ankide euskaldunekin, ez dago zalantzarik, euskaraz egiten dugu. Euskaldunekin, euskaraz”.

5x5:


1. Alaba. 2. Label. 3. Abila. 4. Belai. 5. Alaia.

Askatasunaren antza duen teatroa

URRIAK DIRA OSO paperean argitaraturik iristen zaizkigun teatro-testuak. Pasa berri den Durangoko Azokari erreparatzen badiogu, sormen propioko bi lan eta itzulpen bat aurkitu ditugu: Mikel Antzaren *Z²* argitaratu du Ataramiñek, *Maiatz* aldizkariak 57. alean Gerard Bagardie-ren *Biarritzeko bainu begirale jaunak*, Fito Rodriguezek itzultitako Juan Mayorgaren *Azken lerroko mutila* Artezblai argitaletxearen eskutik. Antzerkia izan gabe, *Gizona ez da txoria* antzezlanetik abiatuta sortu da *Habiak* izeneko komikia, Dejabu eta Maite Gurrutxagaren eskutik, Txalaparta argitaletxeak plazaratua. Uda aurretik Samara Velteren *Eta Kar-mele?* litzateke erreferentziarik berriena, Argitaletxea Edolren eskutik plazaratua.

Arte eszenikoetan bada nolabaitetako maitasun-gorrito harremana testu eszenikoaren eta literaturaren artean. Neurri handi batean, antzerki “post-dramatikoa” deitu izan den horren baitan testu eszenikoa ulertzeko zenbait modu eman direlako. Lan eszeniko garaikideetan ez da ukatzen testuaren erabilera, baina haren lanketa egitura dramatiko narratiboetatik aldentzen da. Horregatik da zaila testuaren kontzeptzio hori (“kalitate” eta ezaugarri literarioak edukita ere) paperean jasotzea dramaturgiari loturiko beste azalpenik eman gabe, testu hauek talde lanean eta beste elementu eszenikoekin batera osatzen diren egitura poetikoen testuinguru hartu behar direlako.

Hori bera izan daiteke egun paperera iristen zaizkigun lanen urritasuna ulertzeko gako bat: teatroak euskaraz paperean berrasmatzeko duen beharraren ondorioz, iritsi iristen denean txikia da testu horrek irakurle goarengan duen inpaktua. Nolanahi ere, literaturak behar du teatroa, arlo eszenikoak behar du papera; behar ditu halaber autore literarioak eta autore post-dramatikoak, haiekin guztiekin osatzen delako eszenaren paisaia.



Oraingoz, egungo testugintzaren parte batek bere hautuetan agertzen duen askatasun formal eta poetikoa oso gutxitan jasotzen dugu paperean.

Zentzu horretan, oso aintzat hartzekoa da Mikel Antzak egin duen ahalegina, are gehiago jakinda zelako baldintzetan sortu duen. Aurretik *Beteluko balnearioko mirakulua* eza-gutu genion Antzari, eta bere teatro zaletasunaren berri ere jaso genuen *Atzerri* nobelako lerro arteetan kasu, Kantor, Ionesco, Artaud, Brecht, *Godoten esperoan* han-hemen aipatzen zituelarik. *Z²* honetan egileak berak itzultitako Jean Genet-en *Zaindaritza zorrotzaren* antzezlanaren oihartzunak topatuko ditugu, titulu bertan hasteko. Edukiari dagokionez, kontrazaleko berba hauek ezin hobeto azaltzen dute liburuaren funtsa: “*Z²n* espetxea ageri da, baina ez hori bakarrik. Preso dauzkaten gizona, emakumea eta baita gu ere, entzuleok, ikusleok, irakurleok, azaltzen gara. Beren, gure, gordinean”.

Egileak berak hitzaurrean azaltzen duen jarrerak egungo antzerkigintzako joera eta kezkei erantzuten die neurri handi batean: “Nik antzerkigileak taldearekin lanean irudikatu izan ditut beti (...). Idazkia oinarri bat da, nire ustez; oinarri horretatik abiatuta osatu beharko litzateke jen-

darteari eskainiko zaion emaitza. Edo beste oinarri bat aberasteko osagaitzat ere erabil daiteke. Zatiak kendu edo gehitu. Zati bat soilik erabili. Alegia, erabateko askatasuna duzuela nahi duzue egiteko”.

Testuan bertan bide interesgarria hartu du Antzak, euskarazko sormen propioko testu argitaratuetan azkenaldi luzean iritsi zaizkigun lanen artean nolabaitetako erdibide bat topatuz. Ez ditu narratibatik datozen idazleek teatrogintzan ohi dituzten ajeak agertzen, alegia, ez da antzezteko baino irakurtzeko balio duen teatro horretan jausten; ez da ere beste muturrean kokatzen, poesiari loturiko esperimentazioan, edo hitza akzio fisikoaren makulu bilakatzeko duten joeran. Hala ere badu bietatik zerbait. Mikel Antzak indar berezkoa duten eszenatan banatu du lana; egoera beti da bera –kartzela– baina eszena bakoitzak bere poetika propioa dauka. Dialogoetan minimora eraman ditu hitzak, balizko akzio fisikoak bilatuz haietan, dramaturgia baterako argibide eta intuitzio interesgarriak proposatuz akotazioetan. Dialogoekin nahastuta datoz bakarrizketa uneak: haietako batzuk literatur kutsu horretara larregi gerturatzen badira ere, beste batzuek berebiziko erritmoa dute, egileak ondo darabilzki esaldi laburrak, erritmoa eta ahozkotatasunaren elementuak. Bakarrizketa une horietako batzuek bere horretan pieza laburrak eginez esperimentatzeko bidea eman lezakete.

Egoerak berak lotzen du antzezlanaren haria, ez hainbeste tramak. Horrek egiten du erdibideko. Amaieran ere bada euskarri eta formatuen hertsitasuna gainditzeko borondate ageriko bat... baina ez dut nik lerro hauetan argibide gehiagorik emango, bila dezala irakurleak bere orrietan, edo ikus-entzuleak noizbait, agian, nork jakin, oholtzan. ■

Oier
Guillan





Euskal Herria ezagutuz

IRURTZUN (NAFARROA)

Aixita gazteluan zelatan

Larraun ibaiak Sakanaranzko joanean urratu duen Biaizpeko igarobideak zaindaria zuen Erdi Aroan: Aixitako gaztelua. Desagertua, egun garai urrun baten oroitzapena baino izan ez arren, bertako talaiari bihurtuko gara, harrizko paretatzarretan iragan galduaren xerka.

Testua eta argazkiak:

| IDOIA GARZES |




TXANGOA HASI AURRETIK bi kontu. Larraun ibaiak zizelkatu duen igaro-bidearen izen zaharra Axitarte da. Baina Biaizpe da egun erabiltzen dena, bi+(h)aitz+pe alegia. Baten batek “bi ahizpa” omen zirela deduzitu eta hortik zabaldu zen gaztelaniazko Dos Hermanas izendapena. Zenbait eskalatzailek ere Hermana Mayor eta Hermana Menor deitzen diete bi haitzei. Guk haitz nagusia eta haitz txikia esango diegu.

Bigarren kontua, berriz, Aixita izenari dagokio. Biaizpeko haitz nagusiaren izena da Aixita eta bertan gaztelua ere bazen —gure gaurko xedea—. Hainbat formatan idatzi izan da gazteluaren izena (Aixita, Axita, Aizita, Aitzita), baina guk bakarra erabiliko dugu: Aixita. Izen-nahasketak azaldu nahian, gauzak gehiago katramilatu ez izana espero dugu. Goazemazue mendira, bada!

Abiapuntua Etxeberrin

Irurtzun ondoan dagoen Etxeberri kontzejutik (Arakil udalerria) hasiko dugu txangoa. Nahi izanez gero hilerriaraino joan daiteke autoz. Guk herrian utzi dugu geurea, Santa Maria kalean, bertan aurkituko baititugu informazio-panelak: Aralarko itzulua egiten duen GR 20a zehazten duena, eta guk egingo dugun Aixitako ibilbidearena (SL-NA 131). Itzuliaren datu aipagarriak daude bertan: 3,8 kilometro luze da, 203 metroko desnibela du eta ordubete eta 20 minutu behar dira gutxi gorabehera bira osatzeko.

Hilerriarantz doan errepidea hartuko dugu, bada. Iristean, langa igaro eta marka zuri-gorri-berdeei jarraituko diegu basoan barrena. Zurezko seinale-zutoina aurkituko dugu; guk eskuinetik beherantz joko dugu, behatokitik. Gora eginda gaztelura joan gintezke —hori izango da gure itzulerako bidea—, baina Biaizpeko bi haitzen handitasunak erakarrita, haien artetik igarotzeko deiarri muzinik egin ezinda, beherantz egin dugu. Zeren biderkagaien ordenak maiz emaitza alda baitezake: harritzar horien azpitik igarota geure txikiaz ohartuko gara, gerora goialdean sentituko dugun handitasuna gorabehera, ahaztea komeni ez dena.



Harritzarrek (e)stonatuta

Xenda itzaltsutik beherantz, zuhaitzen artean noizbehinka inguruak bistara zabalduko zaizkigu: Irurtzun herria, Andia bukaerako Txurregi eta alboan Gaztelu mendiak ikusi ahal izango ditugu, baita autobidearen burrunba entzun ere. Basotik atera eta Biaizpeko haitz nagusia inguratuko dugu. Sentsazioa izugarri

ren alde zulatzen duen asfalto etorrira. Baina zer egingo diogu bada, berak ekarri bagaitu Etxeberrira.

Seinale-zutoinak erakutsiko digu jarraitu beharreko bidea. Larraun ibaiko zubia zeharkatuta Saien Balcoira doana, berriz, beste baterako utziko dugu. Kasu orain, xenda arriskutsu bihurtzen baita bustia denean; arretaz ibili —ondo adierazia dago gainera—. Ezkerretara argindar-dorrea ikusiko dugu, eskalatzaileentzat bidea erakusten duen mugarri bihurtuta. Guk aurrera jarraituko dugu Larraun eta Biaizpeko haitz txikia (673 m) eskuinera ditugula eta ezkerrean, berriz, haitz

Harritzar horien azpitik igarota gure txikiaz ohartuko gara, gerora goialdean sentituko dugun handitasuna gorabehera, ahaztea komeni ez dena

aldatzen da goizeko behe-laino hezeak biltzen badu inguru. Orain ikusgarri, orain gorde-ekzutuan, Biaizpeko haitz txikian Amaia ikusi izana otu zaigu, baina irudia izorratzeko hor da autobidea. Larraun ibaiari bikia jaio zaio, harkaitza alde-


nagusiaren paretatzarra (705 m). Xendak gorantz egingo du, sigisaga, orientazio-mahaira arte.

Haritz artean aurrietaraino


Gora egingo dugu emeki-emeki ezpeldoian sartuta, eta pistarekin



Gazteluaren aurriak eta Erga mendia.



Biaizpeko haitz nagusiaren eskuineko tontorrean (V-aren eskuinera) zegoen Aixitako gaztelua.



batuko gara gero. Pistan gorantz jarraituko dugu, baina adi, marka zuri-berdeak bihurgunea adieraziko baitigu. Eskuinera egingo dugu, pista alboratuta, eta bidezidorrean gora beste seinale-zutoin bat topatuko dugu. Aixitako gaztelua, gure xedea, 700 metrora dugu. Pistan ezkerreantz segi eta segituan ezkerretara harri-metatxo erakuslea ikusiko dugu, ehiza-postu baten ondoan. Haritz bihurrien artean jarraituko dugu, ez du galbiderik: ingurua soildu ahala, har-kaitz biluzi eta amildegi artean ibiliko gara kontuz. Horma-aztarnak topatuko ditugu, garai bateko gotorlekuaren oinarriak, aurri baino ez direla, eta Aixitako gainean gazteluaren historia erakusten duen dorrea topatuko dugu, inguruko zaindari mutu.


Aixitako gaztelua

1210. urteko uztailekoa da gazteluari buruz jasotako aipamenik zaharrena. Antso VII.a Azkarrak sinatutako agiri batzuetan agertzen da. Horietan oinarriturik, gaztelua urte horretan eraiki zutela ondorioztatu dute zenbaitzuek, Araba eta Gipuzkoa galdu ondoren erregeak muga alde hura indartu nahi izan eta. Haren egitekoak ez daude argi: talaia izan zitekeen, bide kontrola edota komunikazio puntua. Izan ere, zeregin horretarako leku aproposan zegoen gaztelua.

Txintxetatxo bat izanagatik, Aixitatik bistaz hartzen den eremua izugarria da. Iparraldera basoa, Nafarroa hezearen azken muga. Hegoaldera, berriz, urrutian Itzaga eta Higa, eta tartean Iruñerria. Andiaren amaierako Txurregi eta Gaztelu mendia alboan, eta Oskiako harratea, Arakilek zabaldutako Iruñerako bide zaharra. Erga mendia dugu ezkerretara, eta baita Biaizpeko haitz txikia ezkutatzen duen haitz nagusia ere. Eskalatzaileri utziko diegu bertara igozteko ohorea.

1512ko konkistan suntsitua omen

Ez zen gozoa izango negu gorriko gauak gazteluzain igarotzea, lekua saien erresuma baita, ezerezera hondoratzen diren amildegiek mugatzen duten inguru ankerra.



Biaizpeko haitz nagusia.

Agiriengatik dakigu goarnizioan zeuden bost bat gizonek hogeiregu gari jasotzen zituztela —erregua le-neurri zaharra zen, 28 litro pasatxo—. Sari xumea omen zen, eta gerra-garaian handiagoa zen, nonbait, ordainaren zenbatekoa, baita goarnizioko soldaduen kopurua ere. Gaztelua garrantzia galduz joan zen, baina 1460tik aurrerako nafarren arteko gerretan ere erabili zuten. Gaztelua desagertu zeneko berri argirik ez badago ere, Nafa-

rrroako Erresumaren 1512ko konkistaren ondoren suntsitu zituzten artean sartzen du Zurita aragoiar kronikariak.

Miraz, iragana gogoan, orainaldira bueltatzeko garaia da. Etorritako bidea hartuko dugu atzera egiteko. Bidegurutzean eskuinerantz eginda ehiztari-txabola txukuna dugu eguraldiak laguntzen ez badiagu, eta aldeko badugu, berriz, Golaratz aldera egin dezakegu Aralar inguratzen duen GR 20ari segika.

Txangoa luzatu nahi ez duenak Etxeberri kilometro batera du; ezkerrera hartuta xendan behera baino ez da egin behar itzulua amaitzeko. ■



Bisitatu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune parte-
hartzailea.



**Diskoa salgai
denda guztitan**

Zergatik puzten zaizu sabela arratsaldero?

GOIZEAN GOIZ jaikitzean sabela estu eta lau-lauarekin esnatu arren, egunak aurrera egin ahala puzten hasten dela nabaritu duzu. Hiru emakumetik bati gertatzen zaio hori, baina arazoa konpondu daiteke.

Kasurik gehienetan, puztutakosabel hori ez da aparteko arazo baten adierazlea. Baldintza normaletan, sabel barruan 100 milimetro kubo gas egoten dira. Baina batzuetan kopuru hori handitu egiten da, eta pertsona batzuek likidoari eusteko duten joeragatik, eta bai odolak bai linfa gorputzean barrena zirkulatze-ko eduki ditzaketan zailtasunengatik, eguna hastera-koan laua zen sabela puztu eta handitu egiten da.

Zeintzuk dira errudunak?

Sabel barruan gasak eta jariakinak pilatzeko arrazoi asko izan daitezke:

- **Proteina gehiegi hartzea.** Animalia jatorriko koipeek, haragi gorrietatik datozenek bereziki, digestioa zailtzen duten hondakin moduko substantzia asko sorrarazten dituzte. Horrek sabela puzten duten gasak pilatzea dakar. Baina lasai, hala ere. Ez utzi besterik gabe gantz horiek kontsumitzeari, gorputzak derrigorrean behar baititu zelula nekatu eta hondatuak konpondu eta berriak sortzeko. Horregatik, animalia koipeen artean osasungarrienak bakarrik hartzea gomendatuko nizuke: haragi zuriak, arrainak, edo fruitu lehorrak, intxaurrak esaterako.

- **Edari karbonikoak eta afari pisu eta neketsuak.** Batzuek nahiz

besteek gasak eta hantura dituzte ondorio nagusi. Horregatik, eguneko azken otorduak arina izan behar luke, afaria ahalik eta koipe gutxiarekin egiten saiatuz.

- **Jan ondoren etzatea, eta eserita denbora luzea ematea.** Etzateak digestioa aldrebesten du, eta bigarrenak odol-irrigatzea eta zirkulazio linfatikoa moteltzen ditu. Horrek gorputzaren erdiko eta beheko partean likidoak pilatzea eragingo du.

- **Gorabehera hormonalak eta idorreria.** Emakumeen kasuan,

ideiak argi eduki arren ere, sarritan ezinezkoa da gure bizimodua nahi genukeen bezain osasungarria izatea. Horregatik, erraz betetzeko moduko aholku sinple batzuk dauzkazu jarraian:

- **Gutxi jan.** Egunean sei bat otordu egin, lasai eta denetik janez, elikagai talde bakar bat ere baztertu gabe, baina inolako abusu edo gehiegikeriarik gabe.

- **Murritz gozoak eta gatza.** Egun osoko gatz kopuruak ez luke bost gramotik gorakoa izan behar. Haren ordez perrexila, kuminoa, tipulina, oreganoa eta halako espezieak eta belarrak erabil daitezke.

- **Hobetu ezazu oinez ibiltzean duzun jarrera.** Makurtuta bazabiltza, abdomeneko muskuluak erlaxatu eta sabela puztuko da.

- **Hartu infusioak.** Salvia-infusioak oso mesedegarriak dira sabela puzteko arrazoiak bihotzerrea edo errefluxua denean. Te berdeak eta kamamilak digestioa bizkortzen dute.

- **Ez egin kirolik otorduen ostean.** Ariketa

fisikoak digestioa oztopatzen du, sabeleko astuntasuna eta hantura eragiteaz gain. Baina eragozpen hori ez da kirola egiteari uzteko aski arrazoi. Emaiozu hogeitu egunean ariketa fisikoari eta zure gorputzak toxina gehiago eliminatu eta jariakinak hobeto drainatuko ditu. Horrek sabeleko puzte sententzioa gutxituko du, noski. ■



sabela gehiago puzten da hilekoaren aurreko egunetan eta menopausian. Baita gorputzean eginkariak "harripatuta" daudenean ere. Egunero jogurtak hartzea oso lagungarri gertatuko zaizu, elikagai probiotikoa baita: jogurtaren bakterioek hestetako floraren lana hobetzen dute.

Horrelakorik gerta ez dakizun

Gizarteak bere arauak ezartzen dizkigu. Aurreko atalean emandako



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Ekologoen izurritea

AMODIOAREN ARBOLA eta Judaren arbola, *Cercis siliquastrum*, arbola beraren izen pareta, horixe pareta! Makina bat traizio badakar amodioak! Saldukeriaren habia ez al da, bada, Judea? Erljioen zokoa...

Zurikeriaz gain, erlijioek badute hurkoarekiko errukia, benetako errukia. Juda salduak ere izango zuen herrenen bat... Judaren arbolak behintzat bai. Arbola, landarea izaki...

Sagardi, madaridi, olibadi eta bestelako fruitu arboladietan lankide bikaina izan daiteke Judaren arbola. Hara, bada. Psila izeneko intsektu batek Judarena erasotzeko ohitura du. Psila horrek ekain aldera arte jotzen du, eta udaberria aldera, hura jaten duten *Orius*, *Chrysoperla* eta, batez ere, *Anthocoris* generoetako harrapariak inguratzen dira. Ekainetik aurrera zer janik ez dutenez, aldameneko fruitu arboletan orduan puri-purian dauden beste psilak jatera mugitzen dira. Judarenak beste arbola horietako izurri horren kontrol biologikoa ahalbideratzen du. Psilak ez du ikaragarritzko kalterik sortzen sagarrondo, madariondo eta olibondo-

etan, baina, haren ninfak iraitzitako melaza edo kaka gozoa onddoei erasotzen diete eta fruituak zikin itxuraz eta likatsu geratzen dira. Itxura ederreko fruitu garbiak izateko Judarena.

Buddleja davidii zuhaixkak, Daviden budleia edo tximeleten zuhaixka deituak, antzeko lana egiten du. Baratze eta fruitu arboladi ertzetan aldatzen da. Uda partean loraldi ikusgarria du, kono-itxurako lore multzo handiak irekitzen ditu, nektarrez eta usainez gainezka, eta haietara milaka tximeleta inguratzen dira. Era berean, kanabera formako adarrak ditu, barrutik hutsak. Tarte hori liztor onuragarri askok bere habiak egiteko erabiltzen dute. Liztor horiek izurriteak sortzeko gai diren intsektu ugariren beldarrak akabatzen dituzte. Zuhaixka inbaditzaile izendatu dute eta zenbait biologok eta ekologok ezin dute begien bistan ikusi ere egin. Gerra santua deklaratu diote. Lur sail abandonatuak harrapatu eta



PETER CLARKE-CC BY SA

Buddleja davidii.

bertakoen garapena eragozten iaioa bada ere, mesedeak egiten badaki. Zein jakintsuk du bere burua landare bat “judatarra” den edo ez izendatzeko gai? Eta Biologo eta ekologoen izurritea nork eragotziko du?

Gudan tximeleten zuhaixka akabatzen badute ere, banbuek bezala kanaberak (*Arundo donax*), intsusak (*Sambucus nigra*), deutziak (*Deutzia gracilis*) eta abarrek prest dituzte antzeko adar hutsak liztor mesedegarriak apopilo hartzeko. ■



Hortentsia santua

GEHIEN egin didaten galderetako bat izango da: hortentsia noiz eta nola inausi behar dut? Bada, hemen erantzuna, Zeraingo Benefiziaduneko hormaren babesean.

Hortentsiak, neguan begietan gordeta jasotzen ditu hurrengo udaberrian irekiko dituen loreak. Era berean zuhaixka da eta, lorearen tamainari eutsi nahi bazaio, etengabe gaztetu behar da.

Inausketak bi helburu ditu: gaztetu eta loratu. Gaztetzeko beheko barrenetik moztu adarrak eta loratzeko adarrak osorik utzi, begietako loreak ireki daitezten. Bi helburuak uztarri berean nola lotu? Erraz asko. Begira argazkiari: adar gehienak (lautik hiru...) osorik utzi eta gutxi batzuk (laurdena) behe-behetik moztu. Utzitakoak loratuko dira eta moztutakoak adar gazte gazteak emango dituzte, hurrengo urteetan indarrean loratuko direnak. ■

Klipa, erresistentziaren sinbolo okerra



VESTERHEIM MUSEOA



LARS ROEDE

Ezkerrean, tropa alemaniarrek Osloko kaleetan, Bigarren Mundu Gerran. Eskuinean, kliparen omenezko monumentua Oslotik gertu, Sandvika hirian. Zazpi metroko klip erraldoia 1989an ipini zuten, Johan Vaaleren asmakizunaren 90. urteurrena ospatzeko. Baina klip hori ez zuen Vaalerrek asmatu.

OSLO (NORVEGIA), 1899. Johan Vaaler (1866-1910) asmatzaileak papearak biltzeko klip edo esteka moduko bat diseinatu zuen. Urte berean asmakizuna patentatzeko eskaera egin zuen Alemanian, eta geroxeago, AEBetan. Bi patenteak 1901. urtean eskuratu zituen.

Lau hamarkada geroago, Bigarren Mundu Gerra betean, Vaalerren jaioterrria alemaniarrek okupatuta zegoen. Gainerako herrialde okupatuetan bezala, Norvegia ere nazien aurkako erresistentzia taldeak antolatzen hasi ziren. Talde garrantzitsuena Osloko Unibertsitateko ikasleek osatu zuten, eta klipa aukeratu zuten okupazioaren aurkako sinbolotzat. Batetik, atentzioa ematen ez zuen objektu txiki eta diskretua zen. Bestetik, esanahi sinbolikoa ere bazuen: klipak paperak batzen zituenez, norvegiarren batasuna adieraziko zuen. Eta gainera, klipa asmakizun norvegiarra zen; edo hala uste zuten behintzat.

Metalezko hari kiribilak arrakasta handia izan zuen ikur gisa, alemaniar okupatzaileak neurriak hartzera behartzeraino. Jakina, objektu ñimiñoak fisikoki ez zeukan inolako arriskurik. Baina naziak, propagandaren maisu izaki, ederki zekiten sinbolo txikiak ere nolako eragina izan zezaketen. Horregatik, klipak

erabiltzea debekatu zuten, heriotza zigorraren mehatxupean.

Gerra ostean klipa Norvegiako sinbolo nazional bihurtu zen, asmakizuna norvegiarra izan ez arren. Vaalerren esteka ez baitzen lehena izan. 1867an Samuel B. Fayk paperak batzeko metalezko hari tolestua patentatu zuen lehenengoz. Eta 1870eko hamarkadan, Gem Manufacturing enpresa britainiarra gaur egun oraindik erabiltzen den esteka ohikoena ekoizten hasi zen, nahiz eta patenterik sekula eskatu ez zuen. Norvegiar erresistentziako kideek soinean eraman ohi zuten klipa Gem-ena zen, ez Vaalerrena.

Kliparen sortzaile titulua lortzeko berandu iristeaz gain, Vaalerren diseinuak huts nabarmenak zituen. Gem kliparen tolestura biribilduen ordeztu, Vaalerrek angelu zuzenetan tolestu zuen haria; horrek paperak batzea oztopatzen zuen. Gainera, Gem klipetan bi muturrak gora begira daude, baina norvegiarrak bakoitza noranzko batean ipini zuen, eta hala, klipa batera edo bestera erabili, papera urratzeko arriskua handiagoa zen. Vaalerren asmakizuna ez zen batere saldu, eta patenteak iraungitzean ez zituen berritu. ■



Arrastoak

Ponpeiarren dieta aberatsa (eta bitxia)

CINCINNATIKO (AEB) Unibertsitateko arkeologo talde batek orain arte aztertu gabeko Ponpeia ere eremu bat induskatu berri du, Porta Stabia inguruan. Hogeita bat saltokik osatzen dute eremua. Denda horietako gehienek janaria eta edaria saltzen zuten, eta sukaldeetako, zaborretako zein irazkintetako arrasto mineralizatuak aztertuz, Vesubiok eztanda egin zuenean ponpeiarrek zer jaten zuten ondorioztatu ahal izan dute arkeologok.

Eliteek Italiar penintsulaz kanpotik inportatutako luxuzko produktuak kontsumitzeko aukera zuten: itsaskiak, espeziak... baita jirafa haragia ere.

Baina bitxikeriak bitxikeria, herritar xeheen dietak harritu ditu gehien ikerlariak. Zerealak, fruta, intxaurrak, olibak, dilistak, arraina... Dieta anitza eta osasungarria zuten. Cincinnati Unibertsitateko Steven Ellisen esanetan, "Erromatar Inperioko herri xeheaz orain arte izan dugun irudia aldatu behar dugu. Ez ziren ahi plater batengatik mokoka aritzen ziren koitaduak; Ponpeia herriarrek behintzat pentsatu baino bizi maila hobea zuten". ■



PAUL VLAAR

ETXEBIZITZAREN PROBLEMATIKA

Agintarien utzikeriari elkartasunarekin erantzuten

Iruñeko Sanduzelai auzoan bi etxe berreskuratu ditu Nafarroako Hipotekak Ukitutako pertsonen Taldeak, beharra duten familien eskura jartzeko. Etxeetako baten atea ireki dizkigute eta bertako bizilagun berriekin mintzatu gara.

| EIDER MADINA BERASATEGI |

DESJABETZEAK, langabeziak eta bizi baldintza prekarioek egoera larriak sortu dituzte. Etxebizitzaren arazoa geroz eta nabarmenagoa da Euskal Herrian. Hori dela eta, jendea mugitzen hasi da, eta ekimen ugari antolatu dira han-hemenka.

Baionan esaterako, hainbat herri-tarrek okupazio dinamika abiatu dute Plantoun auzoan etxebizitzaren arazoari aurre egiteko. Ildo

horretan, Ipar Euskal Herrian etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko kolektiboa sortu berri da.

Bilbon ere *Bilbao 2013* ekimena abiatu zuten udan, etxebizitzaren arazoa salatu eta eredu berriak sortzeko helburuz. Erribera kaleko 13. zenbakiko eraikina okupatu zuten hainbat lagunek eta abenduan ireki dituzte proiektu anitzak bilduko dituen espazio zabal horren atea.

Etxeak berreskuratzen Nafarroan

Iturri ez ofizialek Nafarroan milaka etxebizitza huts daudela diote, baina ez dago zehatz jakiterik. Nafarroako Gobernuak ez du zenbaketarik egin eta orain artean ez du daturik eman. Nafarroako Hipotekak Ukitutako pertsonen Taldeak (HUT) erregistro bat egin eta datuak publiko egiteko eskatu du Parlamentuan. Euren esanetan, bere garaian bide-



JOSU SANTESTEBAN

Dora Ruiz Rodríguez eta Marco Paz Ocampo bankuak desjabetu ondoren Sanduzelaiko etxean jarri ziren bizitzen, HUTek proposatuta: "Aste nekagarriak izan dira, psikologikoki gogorrak. Baina jendearen laguntzarekin bizitoki bikaina lortu dugu".



HUT NAFARROA



HUT NAFARROA



HUT NAFARROA

Ezkerrean, Sanduzelaiko etxebizitzak okupatu eta konpontzen hasi zirenean jarritako kartelak: “Jenderik gabeko etxerik ez, etxerik gabeko jenderik ez” lema zabaldu zuten auzoan. Eskuinean, berreskuratu aurretik eta ondoren hartutako irudi bana.

zaintzat eraikitako 322 etxe ditu Nafarroako Gobernuak lurralde osoan; horietatik 150 hutsik.

Iragan azaroaren 6an HUTek bi etxe “berreskuratu” zituen Iruñeko Sanduzelai auzoan. Plataformakoek ez dute okupazio bezala definitu, guztionak diren etxeak berreskuratzaren ari direla aldarrikatu dute.

“Nafarroako Gobernuak etxe hauek abandonatu zituen, leihoak ere zabalik utzi zituzten, eta barruan usoek eta beste animalia batzuek habiak egin dituzte. Zergatik ez gizakiek?”, galdetzen dute plataformako kideek.

HUTek jakinarazi duenez, eraikin horretan 13 bizileku daude hutsik, egoera kaxkarrean. 60-70eko hamarkadetan errepide sarean lan egiten zuten beharginentzat eraikitako etxebizitzak dira. Baina bidezainen etxe askorekin gertatu bezala, jada ez da inor bizi eta 15 urte inguru daramate abandonatuta.

Urte horietan guztietan auzokideek agintariei pisu horiekin zerbait egin zezatela eskatu diete. Ez dute erantzunik jaso, Iruñeko Udalak hari ez zegokiola eta Gobernuaren gain jartzen zuen ardura, baina hark ere ez du etxebizitzekin ezer egiteko asmorik erakutsi.

Bizilekuen berreskuratzearen ondotik Luis Zarraluqui Nafarroako Sustapen kontseilariak jakinarazi du ekintza ez duela “begi onez” ikusi, eta aspalditik dabiltzala etxe horiekin zer egin aztertzen. Kontseilariak adierazi duenez “pisuak ez

daude abandonatuta, baina halako tramiteek bere denbora eskatzen dute”.

Hala ere, jendartearen erantzun ona ikusita, HUTeko kideek espero dute Gobernu mugitzen hasiko dela; eta hutsik dituen etxeak atonduko dituela etxebizitza sozial gisa beharra dutenen eskura jartzeko. Bestela, berreskuratzeekin jarraituko dutela adierazi dute. “Ezin dugu Gobernu geldidagoen bitartean zain egon, familia asko eta asko benetako beharrean daudela ikusita”.

Ez dute okupazio bezala definitu, guztionak diren etxeak berreskuratzen ari direla diote

Eskubidea vs. negozioa

Hipotekak ukitutakoen plataformatik salatu dutenez “Foru Gobernu higiezin agentzien negozioa sustatzen ari da etengabe”. Angel Larrea HUTeko bozeramaleak ohartarazi du Nafarroa dela gaur egun etxebizitzaren salmentak bultzatzeko diru-laguntzak ematen jarraitzen duen komunitate bakarra. INEk (Espainiako Estatuko Estatistika Institutua) 2013ko urtarrilean argitaratutako datuen arabera, 2013ko azaroan Nafarroan %9,7 egin zuen gora etxebizitzaren salerosketak lehengo urteko abenduarekin alderatuz. EAEn ordea, %8,6ko beherakada izan zuen etxebizitzaren salmentak.

HUTen ustez, Europako herrialde gehienek ereduari jarraiki, alokairua sustatu behar da. Horretarako alokairuen prezio eta baldintzak malgutzeko neurriak eskatu dizkiete goi-karguei. Norbanakoek alokairuagatik diru-sarreraren %30a baino gehiago ordaindu behar ez izatea proposatu dute.

Bestalde, herritarrak banketxeari hipoteka ezin ordaindu badabilta, ordainetan etxebizitza ematea aldarrikatu dute. “Onartezina da bizileku bat erosteko urteetan zehar ordaindutakoa galdu, etxerik gabe geratu, eta gainera zorretan jarraitzea”.

Duela bi urte sortu zen plataformak, 12 talde ditu guztira Nafarroa osoan. Hastapenean hipotekak kalteetako pertsonak osatzen zuten plataforma, baina egungo egoera eta eskaera ikusita, komisio bat sortu dute alokairuan bizi den jendearen beharrei erantzuteko.

Dora Ruiz eta Marco Paz

Sanduzelai auzoan berreskuratutako bi pisuetako batean bizi da Dora Ruiz Rodríguez eta Marco Paz Ocampo bikotea. Ruiz 2002an iritsi zen Iruñera Kolonbiatik, Paz aldiz, 2001ean Ekuadorretik. 23 eta 25 urteko seme-alabak haiekin bizi dira, Fabian eta Lady. Horiez gain, Pazek bi seme-alaba ditu Ekuadorren eta Ruizek beste bat Kolonbian.

Garai hartan lana zuten biek eta soldata onak irabazten zituzten. Pisu bat erostera animatu ziren, hilean 730 euroko kuota ordainduta. Handik denbora batera, intere-

sen eta Euriborraren igoerarekin, 1.460 euroan ezarri zieten hipoteka, hasierakoaren bikoitza.

Lana galdu zuten biek eta zazpi urtetan hipoteka ordaindu eta gero, banketxeak desjabetu egin zituen duela bi urte. Baina 141.300 euroko zorra dute oraindik. Alokairuan bizi izan dira ordutik eta hilabete amaierara iristeko zailtasun handiak izan dituzte.

Irtenbide bila

Bikoteak dioenez, ate guztiak jo dituzte laguntza eske, baina inork ez die soluziorik eman. Hipotekak Ukitutako pertsonen Taldearengana joatea izan zen azken aukera. “Haiek izan dira lagundu diguten bakarrak”, aitortu du Ruizek.

Plataformarengana jo zutenean, hasieran lotsa pasa zutela gogoratzen dute, haien bizitza “biluztu”, nondik norakoak kontatu eta finantza kontuak azaldu behar izan zituztelako. “Baina bileretan beste pertsona batzuen kasuak entzuten dira; ohar-tzen zara ez zarela bakarra eta gu baino egoera larriagoan dagoen jendea ezagutu dugu”, azaldu du Pazek.

HUTeko kideek Sanduzelaiko etxebizitzetako batean sartzeko prest zeuden galdetu zientenean baiezkoa eman zuten. Hasieran dudak izan zituzten, beldurra ematen zielako legeari izkin eginez haienta ez zen etxe batean sartzeak. “Azkenean aurrera egin genuen galtzekorik ez geneukala ebatzita”.

“Aste nekagarriak izan dira, psikologikoki gogorak”, dio Ruizek. Hastapenetan buruhauste asko izan zituela gogoratu du, barne gatazka zuela, ongi egin ote zuten etxetean sartuta.

Orain etxe berriko sofán eserita beste modu batera ikusten ditu gauzak eta harro dago hartutako erabakiaz. “Etxeak ikusi genituenean asko nahigabetu nintzen, oso utzita zeudelako, egoera penagarrian. Ez nuen nire familia halako leku batean bizitzen ikusi nahi. Baina jendearen laguntzarekin sei astetan bizitoki bikaina lortu dugu”, dio pozik.

Haiei jaioterrietako familiei ez diete gertatu zaienaren berri eman, senideak asko kezkatuko liratekeelako eta beldur direlako gertukoek “porrot egin” dutela pentsa deza-



“Guk ez dugu musutruk bizi nahi, gure diru-sarreraren arabera alokairu soziala ordaindu nahi dugu”.

ten. “Ez lukete ulertuko, han jendea ez da hemen bezala zorpetzen. Dirua duenak erosten du eta ez duenak ez. Entitate publikoei ordaintzen ez badiezu kartzelara zoaz. Baina partikular batekin zorretan egonez gero heriotza arriskua duzu. Hemen, aldiz, gauza txiki-ena ere epeka finantzatu daiteke, eta horrek kontsumo kultura areagotzen du”.

Haiei esperientzia beste batzuentzat baliagarri izan dadin nahi dute Dora Ruizek eta Marco Pazek

Auzolanaren emaitza

Adin ezberdinetako jende ugari ibili da auzolanean etxeak egokitzen; eta beste hainbatek sukaldeko tresnak edota etxerako gailuak eman dizkiete. Aurreko etxebizitzatik haien altzari eta gauzak eraman dituzte bizitoki berrira, baina sukalde eta komuna esaterako jendeak emandakoarekin atondu dituzte. Ez dute berogailurik, baina estufekin moldatzen dira.

HUTeko kideak oso eskertuta daude: “Autoritateak erakusten ari diren sentsibilitate ezari erantzun diote herriarrek”, dio Larreak. “Bai ahal da” mezua zabalduz beste etxebizitza eredu bat aldarrikatu nahi dute plataformakoek.

Ruizek eta Pazek gogoratu dute eraikineko beste hiru bizitzetako auzokoei ere ongietorri beroa egin zietela. “Berehala hurbildu ziren gu ezagutzera eta auzo-lagun berriak izateaz asko poztu zirela adierazi ziguten. Egunez egunera hondatzen ari ziren etxez inguratuta egon baino nahiago dute jendea bizi den pisuak izan aldamenean”.

Kontratu baten beharra

Nafarroako Gobernuarekin kontratu bat lortu nahi dute. Gutxieneko baldintza batzuk sinatu eta legearen barruan egon, edozein momentutan bertatik botako ez dituztela ziurtatzeko. Bestalde, etxebizitzari aseguruia egin nahi liokete zer gerta ere, eta argindarra eta ura ordaindu. Orain bizitokia haien izenean ez dagoenez ez dute gasturik ordaintzen baina inongo agiri ofizialetan ez da agertzen han bizi direnik, eta horrek legearen aurrean babesgabe uzten ditu. “Guk ez dugu musu truk bizi nahi, gure diru-sarreraren arabera alokairu soziala ordaindu nahi dugu”.

Haiei egoeran dagoen jendea animatu dute norbere herri edo auzoko plataformara jo eta ahal den neurrian halako egitasmoak egiteko. Haiei esperientzia beste batzuentzat baliagarria izan dadin nahi dute. Aldi berean, prest agertu dira hemendik aitzina etor daitezkeen berreskuratzetan parte hartzeko. ■



«Eusebio Osa idazle morala eta kontsekuentea izan zen»

Eusebio Osa. Belaunaldi baten lekuko liburua (EHUren argitalpena) kaleratu du Pako Sudupe idazleak. Eusebio Osaren (Bergara, 1936-Gasteiz, 1993) pentsamendua bildu du. Egungo Euskal Herria ezagutzeko ezinbesteko belaunaldia da gasteiztar bilakatu zen bergararrarena. Eusebio Osak pentsamendua eta praxia uztartu eta elikatu zituen.

| MIKEL ASURMENDI |

Nor izan zen Eusebio Osa?

Hasteko, esango nuke idazle morala izan zela, eta oso kontsekuentea. Fedez hartu zuen abitua, fedez aritu zen hamar urtetik gora fede katolikoa zabaltzen, meza eta sermoien bidez, eta Eliza katolikoa kapitalismoaren euskarri nagusia zelako konbentzimendura heldu zenean –Jesukristoren bizi ereduarekiko miresmena atxikiz–, fedez kendu zuen abitua, beste fede bati lotzeko: zapalduen aldeko fedeari. Horrela azalduta, abitu aldaketa huts gisa irudika daiteke bere bilakaera, baina ikuskera okerra da hori. Vatikanoko II. Kontzilioak eta 68ko maiatzak sorturiko giro kultural eta intelektualean hartu zuen erabaki hori, beste euskal apaiz eta fraide askok ere 1968-1973 urte bitarte horretan hartu zuten bezala, baina erabaki pertsonal zailaren eta harekin kontsekuente izatearen handitasunak ez du urardotzen, mendekotasun eta bide oinkatu errazagoak bertan behera utzita.

Utopian sineslea izan zen, akaso?

Bai, ezinbestean sinetsi behar utopian gisa horretako erabaki bat hartzeko. Apaizgoan bizimodua egina zeukan, baina arrasto egin horretatik irten eta bide ezezagunari ekiteko itxaropena behar da, gutxiengo pribilegiatu batek gehiengo desabantailatuagoa zapaltzen duen egoerari buelta eman dakiokela sinetsi behar da, eta sinesmen horri eutsi egin behar zaio, porrotak porrot.

Belaunaldi baten lekuko pertsona bezala ekarri duzu. Azaldu iezaguzu belaunaldi hura.

Joxe Azurmendi belaunaldi berekoa da –bost urte gazteagoa Eusebio Osa baino–, eta *Oraingo gazte eroak* liburuan dio bere belaunaldiaren arazoa izan daitekeela belaunaldi bakarrean lau mende eta hiruzpalau iraultza batera bizi beharra gertatu izana: Pio XII.ak irudika dezakeen ortodoxia katoliko hertsitik existentzialismo kristau edo ateora; handik marxismoaren lilurara berehala, eta laster postmodernismoaren girora. Horrela, nork zuzen asmatu? 60ko hamarkadan, Europan katoliko sozialistak eta

“Eskolak pertsona autonomoak sortzeko balio behar zuela zioen”

komunistak ateratzen hasten dira, eta kasik egia dogmatiko salbagarritzat edukitako doktrina asko zama historiko arras kontingentetzat jorik, galdu egin zen lehen eduki uste zen eta elkarbizitzari lotura eta segurantzia ematen zion gehiagotasun moralaren sentimendu harroa. Osaren kasuan, John Robinsonen *Honest to God* liburua eta D. Bonhoefferren obra aipatu behar dira biraketa ideologikoan erabakigarri, batez ere teologo protestante hark Berlingo Tegelgo presondegian


idatzitako gutunak. Metz teologo katolikoak ere eragin zion. Eta ez gutxiago Gasteizko eliz hierarkia atzerakoiak eragindako higuinak

Nola egokitu zen bera, garai hartan erregimen diktatorialaren, sistema kapitalistaren edota Eliza katoliko zurrunaren aurka ari zirenen artean.

Borroka erradikala ez zuen Arabako elizaren barruan planteatu, handik kanpo baizik. Oñatiko agustindar laterandarretan apaiztu zen, eta 1967an Gasteizera igorria izan zen fraide mordoxka baten arduradun. Lehenbizian, euskalduntasunaren inguruan –euskarazko alfabetatze eskolak, Olabide ikastolan haurrekin–, eta Vatikanoko II. Kontzilioaren irakatsiekin hobeto ezkontzen zen eliza munduari irekia sustatzeko borrokari ekin zion, bere ardura- pean zituen fraide agustindar haien eta Gasteizko euskaldun eliztarren komunitatean.

Euskaldun bat elizan, Arabako elizan. Zer eman zion elizan eta erlijioaren abaroan hezi izanak?

Talka bizi izan zuen Gasteizko elizaren hierarkiarekin. Bi taldetan banatuak zekuskien apaizak, gotzainari amen-amen egiten ziotenak, eta besteak. Besteak ez ziren oso erradikalak, gutxiegi politizatuak zeuden, beharbada, baina gotzainak eta besteak arras gibelatuak zeudenez, kontzilio aurrean planto eginak, ziren baino aurrerazaleago ziruditen. Horretaz gain, oso espai-



"Oraingo gazte eroak liburuan Joxe Azurmendik dioenez, bere belaunaldiaren –Eusebio Osaren belaunaldi berekoa da– arazoa izan daiteke belaunaldi bakarrean lau mende eta hiruzpalau iraultza batera bizi beharra gertatu izana". Eusebio Osa eskuinean, duela 25 urte inguru emandako hitzaldian.

nolak ziren, Gasteiz Salamancatik bereizten ez zela uste zutenak

Nolabaiteko talka jaso zuen, antza.

Talka horrek apaizgoa uzteko gogoa areagotu zion, hain segur. Olabide ikastolatik ere artean apaiz zela bota zuten.

1971. urtean bota zuten Gasteizko Olabide ikastolatik. Gaurdanik begiratuta, hamarkada hura ezagutzeko Eusebio Osaren ibilbidea lagungarria da.

Hor hiru faktore aipatu behar dira: 1. Euskara irakaskuntzan sartzeara. 2. Euskaraz gain, irakaskuntzaren beraren nolakotasuna, eta azkenik, *last but not least* (azkenik, baina ez munta gutxikoa). 3. Erlijioaren eta irakaskuntzaren arteko nondik norakoa.

Lehen puntuarekin eskuineko euskaltzaleak eta ezkerrekoak bat zetozen, baina bigarrenean eta hirugarrenean ez. Eskuineko euskaltzaleentzat: euskara, gehi euskal historia eta geografia eta literatura pixka bat eta kristau ikasbidea; eta Eusebio Osarentzat, aldiz, eskolak pertsona autonomoak sortzeko balio behar zuen. Zioen gizakia pentsatzearen,

"Gizakia pentsatzearen, hautuak egitearen eta jarduerari ekitearen bidez egiten zen pertsona, Osaren ustez"

hautuak egitearen eta jarduerari ekitearen bidez egiten zela pertsona, eta hiru ahalmen horiek landuz giza balio batzuk lantzen zirela: erantzukizuna, ekimena, adierazpidea edo hizkuntza, langiletasuna, senidetasuna, egia, esperantza, justizia, elkarkidetzatza, besteen nortasunaganako begirunea eta abar. Ikastolako harreman guztietan: jolasean, hizketan, ikasketan, balio horiek mamitzea eta lantzea zen ikastolaren egitekoa, haur hori kulturaz jabetzea eta pertsona bilakatzea.

Erlijioa kristau-ikasbide mailan ikastolan sartu nahi zutenak euskal-

dun fededun eskemarekin bizi zirela zeritzon. Halakoek kultura eta fedea maila berean jartzen zituzten, nahitaez kotasunaren mailan, eta ezinbestekoa haurrari kultura ematea zen, baina fedea ez. Fedea giza egituren barruan derrigorrezko bezala sartzeara fedeari bi tiro ematea zen. Gauzak hobeto azaltzeko fedearen baitan bost memento bereizi beharra aipatzen zuen. Baina hemen ezin dugu gehiago azaldu, interesa duenak liburaren bigarren kapitulura jo beza.

Zer azpimarratuko zenuke bere jarraz, bere lanez, bere ekarpenez. Izan ere, estatus soziala aldatu nahi izaten duena –iraultzailea–, galtzaile izaten da.

Gaur egun irakaskuntzan leku ezagutgarria dute edukiek eta leku izugarria dute memorian oinarrituriko azterketek, ebaluazio jarraituaren formulapean. Haurra kulturaren bidean eta pertsona bilakatzearen bidean heztearen garrantzia, eta motibazioa azterketek kanpo lantzearen eta lortzearen beharra aipatuz, Osaren pentsamenduaren arrastoari jarraitzea izango litzatekeelakoan nago. Horrekin batean, kultura herri xeheari eskaini beharra azpimarratu zuen Osak, Paulo Freireren pedagogiarekin uberan. ■



«Izugarrizko menderakuntza jasaten ari gara eta geldirik gaude»

Iturbide mexikarra da eta nahuatl hizkuntza erabiltzen du egunerokotasunean. Hizkuntza ez da bere kezka bakarra, nahuatlaren bizimodua mantendu nahian lanean baitabil bere komunitatean eratutako kooperatiban. Etxera joan aurretik, Jatorrizko Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua egiten harrapatu dugu Eskoriatzan.

Testua eta argazkia:

| IURE EIZAGIRRE |

MEXIKOKO CUETZALA udalerrian du jatorria Bonifacio Iturbidek, Puebla estatuan. Nahuatl komunitatekoa da, Mexikoko indigena komunitate handienekoa. Egun, milioi eta erdi biztanle baino gehiagok hitz egiten dute nahuatl hizkuntza, baina bere biziraupena ez dago bermatuta. Erabilera bultzatu eta komunitatearen ohiturak mantentzeko, irratia jarri zuen martxan Iturbide kide den Unión de Cooperativas Tosepan elkarteak.

Konta iezaguzu zertan den irratia-er proiektua.

Duela urtebete jarri genuen martxan. Kultura ekoizpenaren bitartez, programak gure hizkuntzan eskaini, eta gure hizkuntza salbatu eta sustatu nahi dugu. Informazioa gure hizkuntzan eskaintzen duen irratia nahi dugu.

Sistematikiko oso kritikoak gara, gure herrialdeko egoera beste modu batean ikusten dugu, ez gaur egun telebista kateek edo beste irratiek ikusten duten eran. Horregatik, nola bizi nahiko genukeen ere erakutsi nahi dugu eta hori nola egin aztertzen ari gara. Horretarako etorri naiz, nahuatl kulturaren baitan hizkuntza indartuko duen komunitatearen irratirako estrategia eta tresna bila.



“Sistematikiko oso kritikoak gara, gure herrialdeko egoera beste modu batean ikusten dugu, ez gaur egun telebista kateek edo beste irratiek ikusten duten eran”.

Urtebeteko ibilbidearen ondoren, zein da irratia-er lekua nahuatl komunitatean?

Oraindik indar gutxi du komunitatearen barruan. Hasitakoan oharu ginen jendearen gehiengoak ohiko irratia bat entzun nahi zuela. Mexikon irratien %96 enpresa pribatuen esku dago eta Gobernuaren esku, berriz, %2,5. Azken horietan daude

komunitate-irratia; legeztatu gabe daude, irratia komertzialen eta Gobernuaren proposamen ezberdina dugulako. Legea oso gogorra da eta dio komunitateen irratiek ez dutela komunikazio erreformaren barruan egon behar, erradikalak direlako, eraso egiten dutelako, eta matxinatu.

Komunitatean agian ez dakite

baina FMko irratia nahi dugula diogunean ez gara irati komertzialaz ari. Hainbat gazte etortzen zaigu; irratian espainieraz egin nahian eta guk ezetz esaten diegu, guk hitz egiten dugun moduan egin behar dugula, ez parekoak egiten duen moduan. Hizkuntza ez ezik, edukia garrantzitsua da guretzat: ez lirateke eskaini behar narkocorridoak (narkotrafikoari buruzko abestiak); generoaren aurkako musika; mezurik ez duen eta denbora-pasarako bakarrik balio duen ingelesezko musika.

Azken hilabeteetan konturatu gara jendea ari dela erantzuten, heltzen zaizkigun idatzizko mezuak nahuatlez dira. Jendea ari da garrantzia ematen gure herriaren irratitari. Uste dut oraindik eragin handia izan dezakeela, irriti txikia izanda ere asko irabaz dezakegu eta hizkuntzaren arloan gehiagora egingo du.

Bestelako proiektuak ere garatu dituzue irratitik.

130 ordu inguru ditugu grabatuta gure herriaren izaeraz, aitona-amonez, emakumeez, herrian nola bizi ziren azalduz, ezagutzen dituzten landareez, sendabelarrez... Aldi berean, galtzen ari garen esapideak eta hitzak berreskuratzen ari gara, ezagutza kulturalarekin batera. Horri esker, 7.000 sarrerako hiztegia prestatu dugu eta ikuskatze-lanetan ari dira.

Gainera, gastronomia lehiaketak egin ditugu kooperatiban eta 70-80 errezeta jaso ditugu. Bazkideei eurek prestatutako platerak eskatzen dizkiegu eta nahuatlez gain, totonaka komunitateko kideenak jaso ditugu. Nola prestatzen dituzten eta produktuak nola lantzen dituzten azaltzeko eskatzen diegu. Errezetak idatzita geratzen dira, nahuatlaren idatzizko transmisioa gauzatuz.

Kooperatiba aipatu duzu. Zein helburrekin sortu zenuten?

1977an sortu genuen kooperatiba, oinarrizko produktuak oso garesti saldu eta gure produktuak oso merke erosten zituztelako. Arroza, adibidez, 12,50 pesotan saltzen ziguten, denon dirua batu eta kooperatiban lanean hasi ginenean, garraio gastuak kontuan hartuta, 2,50 pesotan erosten genuen.

Batu ginen une hartatik mahai gainean egon zen gure egoera etniko-kulturala, eta asanbladak esaterako, nahuatlez egiten genituen. Prozesuak indartu egin genituen eta dirua aurreztu eta mailegurako kooperatiba baino gehiago eratzea pen-

**“Hainbat gazte etortzen
zaizkigu, irratian
espainieraz egin nahian
eta guk ezetz esaten
diegu, guk hitz egiten
dugun moduan egin
behar dugula”**

tsatu genuen. Osasun kooperatiba
egin genuen eta gero, hezkuntza-
koa. Hizkuntza galtzen ari zela eta
hezkuntza-sistema hau irensten ari
zela ohartu ginen.

Zein da nahuatlaren egoera Mexiko-ko hezkuntzan?

Mexikoko Hezkuntza Publikoko Idazkaritzak curriculum bakarra du herrialde osorako. Estatuak hezkuntza nagusian, hau da espainieraz, eskaintzen du hezkuntza. Guk, berriz, uste dugu jatorri ezberdineko jende talde bakoitza bere beharren, lurraldearen, kulturaren eta jatorriaren arabera prestatu behar dela.

Nahuatla hizkuntza nazional gisa aitortuta dago baina ikasge-
tan ez da irakasgai guztietan erabil-

tzen, nahuatlez ematea beharrezkoa den irakasgaietan edo hauen zati batzuetan bakarrik ematen dute.

Alor horretan zer lan egin duzue?

Umeen Etxea izeneko eskola batekin hasi ginen 2007an eta aurreneko belaunaldia graduatu eta bigarren hezkuntzari eman diogu hasiera. Orain, bigarren hezkuntzan matematika eta biologia nahatutako hizkuntzan eman ahal izateko lanean ari gara.

Gainera, uste dugu ikasleek ez dutela lau edo sei orduz ikasgela itxita egon behar, ingurunean egindako praktiketan sinesten dugu. Landaguneetan praktika eta gure kultura uztartuta –artoa eta barazkiak ereinda, hegaztiak, loreak eta natura ezagututa– biologia, kimika eta matematika ikas daitezkeela uste dugu. Hezkuntza, gure ingurunea, osasuna eta kultura lotu nahi ditugu.

Garabide eta Huheziren Jatorrizko Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua egiten aritu zara. Ondoriorik atera al duzu?

Batzuk lehendik konturatuta geunden erreallitate baten jabe egin gara guztiok: izugarritzko menderakuntza jasaten ari gara eta geldirik gaude, pasibo, egoeraren aurrean entzungen. Egoera edozein izanda ere, jarraitzen badu, ez gara ohartuko noiz galduko den gure hizkuntza, beste hizkuntza onartu eta gurea utzi egingo dugulako. Hemen gaude jendeari ohartarazteko horrela jarraituz gero, desagertu egingo garela, jatorritzko milioika pertsona egongo gara hainbat lurraldetan baina gure hizkuntzak ez dira egongo. Gure esku dago zer-bait egitea eta ondorengoei bide horretan jarraitzeko erantzukizuna uztea. ■



Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala

Bidea urratu duten bertsoak

ARGIArekin opari


1885 ingurukoa da ezagutzen den lehen bertsoa, eta ordutik gaur arte emakumeek urratutako bidea bildu dugu, bertsoen bidez. Ezagutzak itzuliko ahal die dagokien lekua.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

BERTOSO bilduma bat da otsailaren 9ko alearekin jasoko duzun liburuxka. Urratzaileak izatea, horixe dute hautatzerakoan erabili dudak irizpidea: ezagutzen diren lehen bertsoak direlako, 1918an herri bazkarian mahaira igota kantatu zituelako, jainkotzat zeukaten bertsolariari erantzun ziolako, txapelketan kantatutako lehen bertsoa izan zelako, txapeldunen agurrak direlako, gaiak taularatu dituztelako... Bertso jarriak dira nagusi -15 sorta, bat batekoak aldiz 8-, gaiak sakon lantzeko aukera ematen duten seinale. Eta poztu gaitu ARGIAko "Bertso Berriak" atalean bildumarako moduko sorta dextente aurkitu izanak.

Bertsoen atzeko bertsolaria berreskuratzen eta testuingurua azaltzen saiatu gara testu laburren eta argazkien bidez. Merezi du Joxepa Matea Zubeldia Elizegiren bizitza ezagutzea eta bere bertsoen bidez Hernanin emakumeek libratu zuten batailaren berri izatea. Edo *Xenpelaar* bi bertsolariren izena dela ohartzea, Joxepa Aranberri Petriren (1865ean jaioa) fabrikako langile eta bertsolaria izan baitzen.

Asko dira liburutatik bazter utzi direnak -"emakume bertsolari gizatxar" edo "ondoko etxeko alabarekin aritzen zela bertsotan" gisako erreferentziak bai baina haien izenik eta bertsorik ez da ageri liburu sail aberatsenean-. Zenbaten bertso jarriak erre ote dira? Ahoz aho transmititutako memoria kolektiboan ere apenas



ARGIA astekariko harpidedunek eta Interneteko laguntzaileek etxean jasoko dute.

egin zaien lekuri. Liburuxka honek, bere xumean, beti izan direnaren lekukotasuna biltzea eta beren bizitza eta bertsoak ezagutaraztea du helburu.

Nola gaude?

Minik handiena bertsolari gehien dauden garai honi orraze estua pasatzeak eman digu. Aberatsa gaiez eta kopuruz, lehen kolpean. Ordea, bilaketa egiterakoan ohar-tzen da bat bakarkako lanak direla ia denak (nola bertso jarrietan halaxe plazakoetan). Banaka sartu dira emakumeak oholtzan eta bakarka landu dituzte lehenengoz hainbat gai. Ezin dialektikarik, aniztasunik,

kontraesanik erraz irudikatu. Plazako joera orokorraren ertzean, badi-ra elkarrekin landu izan diren hainbat emanaldi (*Kabareta*, *Ez da kasualitatea...*) eta ekintza (Azkizuko Topaketak, bertso eskola feministak...). Ekimen hauen berri ere bildu dugu. Bestalde, gazteak dira ohol-tzan dabiltzanak eta heldu aroko gaiak eta ikuspegiak irabazteko daude oraindik.

Liburuxka hauet esker atera da

ARGIA astekariko harpidedunek eta Interneteko laguntzaileek emandako babes ekonomikoari esker argitaratu dugu bilduma hau ere. Horiez gain, liburuxka honen laguntzaile dira Emakunde, Bizkaiko Foru Aldundia eta Koldo Mitxelena Kulturunea.

Non eskuratu

ARGIA astekariko harpidedunek eta Interneteko laguntzaileek etxean jasoko dute. Kioskoetan alearekin batera banatuko dira. Eta zabalpena dugunez helburu, argia.com-en egongo da PDFa jaisteko aukera. Bertsozaleentzat erreferente diren beste hainbat ekitalditan ere banatuko dugu liburuxka: urtarrilaren 25ean Kursalen atarian (Bertso Eguna dela eta), AM Kultur Promotorak antolatutako kontzertuetan (Sortuko dira besteak eta abar), bertso eskola feministetan eta ohiko bertso eskoletan... ■



Bahea

Unai Fernandez de Betoñok Gaur 8n esanak:

DANI BLANCO



"Hirigileak dira harreman hori hain argi ikusten ez dutenak. Arraroa, kultura-ondareaz eta tokiko identitateaz azken boladan hainbeste hitz egiten duen gremio baterako. Antza, hirigile gehienentzat eraikinek eta naturak soilik osatzen dute ondarea. Hirigintza-planak gelditu edo eraldatu izan dira Igeldoko igeltxoagatik (Donostiako Ibaetako industrialdea), europar

bisoiagatik (Ondarroako Aieriko auzoa) edo paduretako ornogabeengatik (Plentziako eta Barrikako Txipioko urbanizazioa), baina *Homo vasconicus* gaixoaren habitata goitik behera desnaturalizatzeak ez du ia inor kezkatzen. Baina *Homo* (eta *Mulier*) *vasconicus* espezie setatsua, nomadak ez diren zerupeko izaki guztien moduan, lurralde jakin batean bizi da, espazio fisiko zehatz batean: Euskal Herria deitzen duten horren iparraldean, hots, ipar-isurialdean. Eta, bereziki, euskararen arnasguneak diren herri txiki eta ertainetan, non euskaldunen ehunekoa %70ekoa baino handiagoa den, eta, beraz, euskara hizkuntza nagusitzat jo daitekeen".

Andres Urrutia Euskaltzainburuak Berrian esanak:

DANI BLANCO



"Egia da, hala ere, elkar hartutako euskaltzain batzuk daudela. Dimisioa elkarrekin eman dute batzuek", galderari erantzunez:

"Hor ez daude soilik euskaltzain osoak; badaude urgazleak eta ez urgazle ez oso ez direnak. Euskaltzaindia errealitate konplexua da. 29 kide, eta bakoitza mundu bat da. Kide bakoitzak oso esanahi zabala dauka euskalgintzan, alor desberdinetako jendea daukagulako, eta alor horietan jende horiek erreferentzialak eta esanguratsuak direlako. Esfortzua egin behar dugu adostasunetara iristeko. Puntu batzuetan euskaltzain batzuk egongo dira adostuagoak, eta beste batzuetan, beste batzuk. Sinesten dut aniztasun horretan. 29 pertsona, eta iritzi esanguratsuak dituzte euskalgintzan. Ez dira edonor. Batzuetan gaitza gertatzen da. Erraztasun handirik ez du ematen, esate baterako, horrelako pertsona esanguratsuak biltzeak hilerio eta puntu batzuen gainean adostasuna lortzeak".

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Euskal Herrian lan egin eta bizi

LOGIKOA DA pertsona orok bere herrian lan egin eta bizi nahi izatea. Munduan milioika pertsona eta familia dira, tamalez, emigratu behar izaten dutenak bizitzeko eta lan egiteko. Euskal Herrian gure artean bizi dira milaka etorkin. Baina hemen ere badaude pertsonak eta familiak emigratzera derrigortuak, euren herri eta eskualdeetan ez dutelako lanik aurkitzen. Krisiarekin, adibidez, 500 barakaldar joan dira herritik kanpora. Egoera hori orokorra da eta aspalditik ari da gertatzen, batez ere Euskal Herriko ekialdean, Pirinioetan. Pirinioetan 103 udalerri daude, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, Espainiako eta Frantziako estatuetako muga administratiboen barnean. Herriotan gero eta jende gutxiago bizi da, gero eta jende helduagoa, eta lan bila kanpora doazen gazteen exodoa etengabekoa da. Zerbitzuak (eskolak, ospitaleak...) herri horietatik urrun daude.

Halako egoera larriaren aurrean, Udalbiltzak hartutako erabakia txalotzekoa da, herri piriniar horien

garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko proiektua jarri baitu martxan, bertako jendeen parte-hartzearekin. Eragin, Elgarrekin eta Garapen Soziala izeneko programen bidez, gazteen emigrazio tasa altua murriztu eta inposaturiko mugen gaineko kolaborazioa bilatu nahi dute. Testuinguru horretan, Gaiendia Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Behategiak egin duen lana onartu eta aintzat hartu beharra dago, baita Euskal Herriko Laborantza Ganbarak egindako ahalegina ere. Bi erakundeak eraikuntza nazionalaren sustatzaile dira eta Udalbiltzarekin elkarlanean ari dira Pirinioetako euskal herritarrek ere Euskal Herrian lan egin eta bizitzeko aukera izan dezaten. Euren lanagatik eskerrak eman behar dizkiegu.

Juan Mari Arregi



Smart berriena niretzat, besterentzat zabor elektronikoa

Krisiak krisi, Eguberriotan mundu aberatseko etxe asko bete dira azken belaunaldiko *smartphone*, tableta eta klase guztietako tresna elektroniko sofistikatuz. Trukean zaborretara jaurtikita telebista, ordenagailu eta urte gutxitan zaharkitutako beste gailu ugari hartu dute herrialde txirotarako bidea. Gu txapeldun zaborra esportatzen.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EGUBERRIOTAN EROSI MILIOIKA telefono sakelako, teklatu, tableta, jostailu, kamera digital eta bestelako gailu elektronikok gizenduko dute datozen urteetan herrialde txirotara bidaiatuko duen zabor elektroniko uholdea. Nazio Batuen Erakundeak ohartarazi du. Zabor elektronikoa %33 handituko da datozen lau urteotan, Egiptoko zortzi piramidek adinako pisuz.

Abenduaren 14an eman zuen NBERen *Solving the E-Waste Problem* (StEP) egitasmoak plazaratutako informazio horren berri John Vidalek *The Observer* egunkari ingelesean. Txostenari oihartzun egin zaio beste zenbait kazetatan ere. Irakurleei albiste kezkarriok zabaltzeko lana hartu duten kazetariak, ordea, ez lukete pentsatu behar egia ezagutarazteak joera ezertan aldatuko duenik. Bortitzegia da kontsumismoaren inertzia.

ARGIAko orriotan 2009ko otsailean idatzi ziren antzekoak “*Gero eta e-zabor gehiago sortzen du e-gizarteak*” kronikan, azalduz nola *Silicon Valley Toxics Coalition* (SVTC) erakundeak alerta piztua zuen planetan gehien ugaritzen ari den zaborraz *Global e-Waste Crisis* informearekin. Bost urteren buruan okerrago dago mundua.

NBERen kalkuluetan, 2013an bertan 50 milioi tona zabor elektronikoa

metatu da planetan, pertsonako zazpi kilo. Ez noski mundutar guztiok berdin sorturik. AEBetako herritar bakoitzak batz bestea ia 30 kilo zarama elektronikoa jaurti zuen; Txinako pertsona bakoitzak, aldiz, 5 kilo baino gutxiago. StEPek bere gunean daukan mapan arakaturik jakin dezakegu Espainiako jendeak 18 kilo pilatu dutela; Frantziakoek 21. Euskaldunon kopuruak Frantziakoekin gainera ibiliko dira, ziur.

StEPeko arduradunen esanetan 2017rako metatuko diren telebista, telefono, ordenadore, pantaila, jostailu elektronikoa eta abarrek beteko lituzkete 25.000 kilometrotan bata bestearen ondoan jarritako 40 tonako kamioiak.

Traste zahar guztietatik asko balizko birziklatzaileek “erabilitako tresna” izendatuta esportatzen dituzte herrialde txirotara, berriro saltzeko edo garapenerako laguntza balira bezala. Amerika aberatsekoak nagusiki Asia eta Hego Amerikara, Europakoak gehien bat mendebaldeko Afrikara. Zein da trafiko ilegal honen tamaina?

Poliziek egiten duten kalkulua Interpoleko iturrietatik bildu du John Vidalek: Europatik irtetean kontrolatutako hiru kontainerretatik batek legez kanpoko zabor elektronikoa zeraman. Txunditzeko zifra da polizien ahotik entzunda.

Harmony Foundation erakundeak bere webgunean daukan irudian neskatoa birziklatzeko zain dagoen e-zabor metaren aurrean, eskuetan duela orain gutxi puntakoa zen *Mac* baten teklatu moñoñoa. Softwareak daraman martxarekin, ordenagailu bat gaur egun bi urtetan zaharkitzen da eta sakelako telefonoak tarte laburragoan. Baztertutako tresna elektroniko askok atal asko dauzkate aldatu ezinezkoak. Duela gutxi esaten bazen merkeagoa zela gailu berria erostea lehenago konpontzea baino, urrats bat gehiago eginik orain teknologiak eragin du gailu horietako asko konpondu ezinezkoak izatea. Tresna elektroniko asko ezin birziklatuak dira gaur. Atalen miniaturizazioaren eraginez, izugarri konplexu bilakatu dira. Eskuko ordenagailu xume batek bere baitan dauzka ehunka substantzia ezberdin, dozenaka metal eta plastiko eta desmuntatzen oso zailak diren hainbat pieza.

Aldiz, kontrastea egiten du Interpolen salaketa ezarritakoen kopuruari: 40 konpainia baino ez. Poliziek argudiatzen dute legeek ez dietela urrunago iristerik baimentzen.

Massachusettsko MIT famatuak kalkulatu du AEBetan 2011n 12 milioi telefono mugikor bildu zirela birziklatzeko baina 120 milioi saldu. Arazoa da birziklatze kopuru ahul hori, baina are arazo handiagoa dakar gailu berriek tamaina txikiagoan dakarten konplexutasunak.

“Eraman nire bistatik”

Urruneko parajeren batean desegin-gidatutako Europatik eta batik bat Amerikatik edo Japoniatik eramandako tresnok, dauzkaten metalak eta osagai batzuk ateratzeko. Teknologia handiko ekipamenduok gai toxikoz eginak daude. Karkasetako eta barne zirkuituetako plastikoei bromoa daukate, sutan nekezago kiskal daitezten. Konektatzaile- eta aleazioetan berilioa dago. Soldatzeak eztaiz eginak dira. Izpi katodikoekin tutuetan beruna eta barria aurki daitezke, merkurioa lanparetan. Horiekin egiten dute borroka herrialde txirotako milaka jendeak —asko haurrak— kasik esku hutsik.

Legez kontrako trafiko hau eragozten ahalegintzen da, besteren artean, *Basel Action Network* (BAN) erakundeak, izen hori hartu duena



niko, MP3, kamera digital, GPS, bideokamera eta tableta irakurgailuen salmenta gora doa tximista bezala. Kopuru harrigarri horiei gehitu behar zaie sekula baino obsoleszenzia laburragoak izatea. Lehen hozkailuak, telebistak edo irratiak hamarkada batzuetarako balio ziguten; gaur edozein traste elektronikoa zaharkitutzat daukagu bi edo hiru urteren buruan.

Hiper-kontsumoak eta hiper-obsoleszentziak, biek elkar harturik, aberasten dute elektronikaren industria. Behar bada asebetetzen gure egoa, gure abiadura beharra, gure lehiakortasun tarteak; baina munduan barrena sortzen dituzte ere zabor mota berrizko mendiak: *e-zaborrezkoak*”.

2017an, kalkulatu dute Nazio Batuen Erakundeak, munduan 10.000 milioi telefono mugikor egongo da martxan. Bost urteotan %33 handituko da zabor elektronikoa. Zer egin agintariek ezin badute bermatu egunero multinazionalak merkaturatzen dituzten tresna berriak berrerabili, konpondu eta birziklatzeko modukoak izatea?

Gipuzkoako Usurbilen hiru gizon gaztek *Eginklik!* taldea sortu dute, eskuratzen dituzten ordenagailu usuak konpondu, osatu, martxan jarri eta horiek herrian bertan eskuratu ezinean dabiltzanei oparitzeko. Bergaran jende helduagoak *KafeKonpon* antolatu du, matxuratutako gailuak bota ez baina konpon-tzen ahalegintzeko. Keinu txikiak baina helburu handiz. ■



Suitzako Basilean adostu zelako 1994an munduko hondakin elektronikoen trafikoa arautzeko ituna... orain artean zenbait herrialdek sinatu ez dutena, tartean Israel, Japonia eta AEBak.

BANeko lider ezagunetarik den Jim Puckettek berrikitan idatzi du *“A place named Away”*. *Away* euskaraz “urruti” edo “hor nonbait” esango genuke: “Utzi traste zahar hau hor nonbait” edo “Eraman hemendik urruti”. Puckettek kontatu du zer aurkitu daitekeen *urruti* horietan, Ghanako hiriburuko Agboglobloshie auzunean, esaterako.

Puckettek idatzi duenez, “Duela hilabete gutxi segundoko milioika milioi agindu prozesatzen zituzten makinak, tekla bat ukitzearekin

mezuak mundu osoraino helarazten zituztenak, edo ahur-beteko azaleran liburutegi osoa zeukatenak, metal eta plastikozko eskeleto bilakaturik aurkitzen dira munduko herririk txiroenetan, mailuka eta sutan desegin ditzaten, ke eta lurrin hilgarriak isuriz”.


Txatartegi basati horietan teknologia neolitikoaz, kolpeka, birrintzen dituzte Informazioaren Aroko eta Ezagutzaren Gizartearen erlikiak, beren zirkuitu mikroskopiko, transistore eta semikonduktoretatik merkatu beltzean saltzeko metalen bat harrapatzeko irrikaz. Hori bai, mailukadez eta suaz gain azidorik erregarrienak ere usatuz.

Dio Puckettek: “Bideojoko, PDA, inprimagailu, jostailu elektro-



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Korrontea

GURPILAK beste abiadura bat hartu du urtarrilaren ondoko manifestazioarekin, baina oraindik ez dakigu nora eramango gaituen. Gero esango dute mobilizazioek ez dutela garrantzirik. Ikusi Burgosko Gamonal auzoan ere. Mobilizazioak arrakastatsuak badira eta une egoki batean beste hainbat egoerekin txertatzen badira, ideien katalizatzaile bikainak dira. Bilboko kasuan, EAJ manifestazio hartan egotea zen berrikuntza, EH Bildurekin eskuz esku, eta bereziki horrek eman dio indarra egoera berriari. Horrek eta bildutako jendetzak, jakina.

Baina egoera berria ekarriko du? Batek daki, baina korrontek bake prozesuaren norabide horretan bultzatzen du indar handiz eta askoz indartsuago izango da PPK jarraitzen badu inongo mugimendurik egin gabe.

Agian horren bila ari da: Euskal Herrian galduta ere, Espainian irabazi. Herritarrak asko haserretzen dira agintariek behin eta berriz euren nahiari muzin egiten diotenean, eta presio hori beti ateratzen da nonbaitetik, hauteskunde bidez edo kalean.

Kontu zaharra da hau, 1987ko Ajuria Eneko Itunak ere argi zioen bere 10. puntuan bakea elkarriketa bidez lortzeko aukerarik bazen, bultzatu egin behar zela, beti ere gai politikoak alderdien eskuetan bakarrik geratzen baziren. APTik (PPren aurretikoa) eta EArainoko indar politiko gehienak biltzen zituen itunak.

Azken bi urteetan inoiz baino argiago dago bakea ez dela bakarrik ETArek atentaturik ez egotea, beste gai asko jorratu behar direla bake egoera egonkor bat lortzeko:

iraganaren irakurketa, biktimak, presoak, identitateak, hizkuntzak, eskubideak... Gatazka indartsu bat bizi izan duen edozelako gizartek bideratu behar duen hori guztia, etorkizunean errepika ez dadin eta egongo diren arazoak elkarriketaren bidez konpon daitezzen.

IPAR IRLANDAKO iraganeko mamuak jorratu ditugu ARGIAko zenbaki honetan. Han duela 15 urte sinatu zuten Ostiral Santuko Akordioa eta jarraitzen dute arazoekin. Baina ez dute aurreiritzirik hitz egiteko eta 2013arekin bat bukatu da beste elkarriketa esperientzia indartsu bat, Haass elkarriketak deitutakoak.

Badakite azken 15 urteetan akordio eta elkarriketa bidez eraikitako bakeak on egin diela

Unionista eta errepublikarren desfileekin arazoak dituzte eta batzuetan badira istiluak. Arazoak dituzte sinboloekin, banderekin batez ere eta 2013aren hasieran –unionistek eragindako– istilu larriak izan ziren Belfasten hango udalak britainiar bandera egunero jarriko ez zela –bakarrik 25 egun seinatueta– erabaki zuenean. Eta batez ere, duten arazo handiena iraganeko irakurketarena da, egia, justiziari eta kontakizunari buruz ikuspegi desberdinak direlako haien artean.

Hori guztia dela eta, Ipar Irlandako gobernu autonomoak iragan uztaillean erabaki zuen elkarriketa prozesu bat jarriko zela abian Richard Haass estatubatuar bitartekariaren gidaritzapean eta aipatutako hiru gai nagusi horien inguru-

ruan akordioak erdiesteko helburuarekin. DUP eta UUP alderdi unionistak, SDLP eta Sinn Féin irlandar abertzaleak eta Alliancek (interkomunitarioa da) sei hilabetez jardun dute hizketan, Haassek zazpi zirriborro aurkeztu dizkie alderdiei eta azkenean abenduaren 31n ez ziren akordiora iritsi, bi alderdi unionistek atzera bota zutelako. Baina saiatu dira eta iragarri dute aurki jarraituko dutela elkarriketekin.

Esan daiteke hura beste prozesu bat dela, beste egoera bat, hark ez duela zerikuririk honekin... nahi dena, baina hor ari dira akordioa lortu guran. Bake akordioan hala adostuta, unionistek eta errepubli-


karrek elkarrekin gobernatzen dute, kasu honetan DUP (PPko eskuineko sektoreen antzekoa izan daitekeena) eta Sinn Féin, IRAren adar zibila izan zena. Antipodetan dira gauza askotan, baina ez dute zoru etikoen eta bestelakoen aitzakiarik. Badakite azken 15 urteetan akordio eta elkarriketa bidez eraikitako bakeak on handia egin diela, badakite ez dagoela atzera biderik, baina badakite dituzten arazoak konpontzea garrantzitsua dela haien elkar bizitzarako. Gaitza dute, inork ez daki nola desblokeatuko den fase berri hau, unionismoak bere gehiengoaren betoa erabili duelako. Baina denek diote jarraituko dutela hitz egiten eta laster hasiko direla berriz.

Mendekuaren ikuspegitik ez bada, ezin da ulertu hemen ere elkarriketaren bidean ez abiatzea. PPren egungo jarrerarekin istorioak ezin du bukaera onik izan. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elxalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN


Donostiako Aquiriuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Ekain berri

Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Igor Arzuaga

Experience

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze, GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Bixente ARGIA rentzako

Bixente Ameztoy ARGIA azalak

1978. urtean Bixente Ameztoyk
Zeruko Argia aldizkarian egindako
36 azal laminatan inprimatuak

2 lamina sorta

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2398. Argia)

HAMLET - SANTURTZI

- Santurtziko Udai Euskategia (Santurtzi)
- Jaione Goienola Guarrotxena (Galdakao)

HAMLET - ARRASATE

- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)
- Elena Iturbe Bengoa (Arrasate)

HAMLET - TOLOSA

- Xabin Mujika Tolaretxipi (Azpeitia)
- Jose Jabier Iraeta Arsuaga (Zaldibia)

ILLIMANI

- Maritxu Etxezabal Larrañaga (Azpeitia)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)

HAMLET - HONDARRIBIA

- Juan Olalde Agirre (Pasai Antxo)
- Mikel Ozaita Azpiroz (Ibarra)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



MUGARRI BAT KONPONBIDEAREN ALDE



"Giza Eskubideak. Konponbidea. Bakea"
Bilbo, 2014ko urtarrilaren 11

2013-12-28. Euskal Preso Politikoen Kolektiboak urratsak iragarri zituen espetxetik ateratzeko bidean, eta gatazkaren konponbiderako lanean ari den Foro Sozialaren gomendioei jarraituz.
2014-01-06. Guardia Zibilak EPPKren bitartekari taldeko zortzi kide atxilotu zituen.
2014-01-10. Eguerdian, Espainiako Auzitegi Nazionalak euskal presoek eskubideen aldeko urteroko manifestazioa debekatu zuen.
Arratsaldean, hurrengo egunerako manifestazioa deitu zuten EAJ, Sortu, EA, Geroa Bai, Aralar, Alternatiba, AB, ELA eta LABek.
2014-01-11. Bilbon 130.000 pertsona ateratu ziren kalera, Euskal Herrian egindako manifestaziorik handienetako batean.

urtarrilaren 11ko
manifestazio
historikoa

Dani Blancoren
argazkiarekin
posterra (42x57cm)

ARGIA BEREZIA

- ☐ Joseba Egibarri eta Joseba Azkarragari elkarrizketak.
- ☐ Amaia Izkoren iritzi artikulua.
- ☐ Euskal Herriko gehiengo soziala batu duen gertakariari buruzko analisiak.



**Manifestazioren
posterra eta
babes hodia**

5€
3€ harpidedunentzat



**Manifestazioaz
zenbaki berezia
eta posterra (tolestua)**

3,90€



**Manifestazioaz
zenbaki berezia,
posterra eta
babes hodia**

8,90€
6,90€ harpidedunentzat

Eskaerak
© 943 371 545
denda@argia.com

argia
Garai interesgarriak
Begirada independentea